

YOGA FAMILIAN: Arnasketa
kontzientetik ongizatera, lau pareta
artean (ere) bizirauteko > 22

BARRURAKO PLANAK:
Askotariko telesailak, edonora
alde egiteko > 26

2020ko martxoaren 21a | XIV. urtea • 664. zenbakia
0,50 euro

GAUR8 


mila leiho zabalik
www.gaur8.info



BARRUTIK IHESI > Jon URBE | FOKU



4



8



**Etiopiako langileek arriskupean
dute Gobernuak abiatutako
industrializazio prozesua** 04

**Lantegi zaharra berriz lanean
Yemenen** 07

**Maien idazkera sistemaren
hasieraren lekuko bat
Guatemalan** 08

«Attona» Maximoren mapak 12

**Elkarrizketa: Jon Maiaren bertsoak,
«ixolamenduari» jarriak** 18

**Yoga familian, pareta artean (ere)
bizirauteko** 22

Ihes egiteko moduko telesailak 26

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



12



18

SINADURAK:

03 **Maite Ubiria Beaumont:**

Agenda autoritarioan nola
eragingo du birusak?

09 **Maider Iantzi Goienetxe:**

Barnetik

09 **Xabier Mikel Errekondo:**

Lainopean

10 **Ander Gortazar Balerdi:** Airea
sar dadin

11 **Mikel Zubimendi Berastegi:**

Koronabirusen kultura berriak
historia aldatu du

20 **Gorka Zozaia:** Nondik gatozen
jakin, nora joan ebazteko

21 **Amaia Nausia Pimoulier:**

Inkisizioa

25 **Amaia Ballesteros**

30 **Garazi Goia:** Tupustean



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Agenda autoritarioan nola eragingo du birusak?

Konfinamenduak, seguruenik, emozioen kudeaketari begira eragina izango du. Azken egunotan oilo ipurdia eragiteko gai diren mezu, irudi eta keinu bestan bizi izan gara. Urrunketa sozialak sortzen duen hutsunea handia izanik, kantez, txalo zaparradez eta abarreko salbazio ekimenez gure gabeziak estaltzeko beharra areagotu zaigu. Bistan da, horietako egitasmo asko kontagioaren eraginez zabaldu dira, globalizazioaren harriak ez baitira guztiz eten. Alta, benetako sare sozialak ahuldu zaizkigun garaiotan, norbera norberarentzat legea nagusi denean, litekeena da ere aukera berriak zabaltzea etxeko leihotatik bertatik hasita.

Izurriteak jo aitzin harreman eredia sendotzeko ekimenak martxan ziren lekuetan, zailtasunak zailtasun, saretzeko energia aiseago askatu da. Gazteek tokiko erakunde eta gainerako gizarte eragileen laguntzarekin egin duten urratsak oso seinale ona bidali digu, finean, bestelako geroa eratzeko nahia dugunoi. Argi izpia piztu du, gaixotasun honi, eta oro har gure gizarteak pairatzen dituen gaitz zenbaiti, irtenbidea xerkatzeko bidean, gure baitan sustraitutako irtenbidea, balore komunitario eraldatzailleekin horniturikoa.

Globalizazio ultraliberalaren, hots, kapitalismo bihozgabearen, muga guztiak agerian utzi ditu gure begiek ikusterik ez duten birusak. Ez da ahalmen falta, lehentasun kontua baizik. Nagusi den globalizazio ereduaren xedea aberastasunen transferentzia izanik –zerbait dutenen poltsikoetatik gutxi batzuen kontuetara–, sinpleki, ez zituzten protokoloak aurreikusita bestelako helburu bat betetzeko, alegia, herritarren babesa hobesteko.

Lehentasunak zorrotz azaltzen diren unean, “hemen-go” herritarrak hil edo gaixotu egiten direnean, gure egunerokotasunak eztanda egiten duenean, maite ditugunengandik sentitzen dugun kezkak gainerako guztia

estaltzen duenean, finean emozioak pil-pilean ditugunean, kapaz izango al gara gogoeta sistematikoari bide bat irekitzeko? Eskuak etengabe garbitzearekin batera, begirada gardena izateko?

Osasun estualdiaren harira, euskal herritarren buruen gainean agintzen duten bi estatuek, salbuespen neurriak hartzeko xedez, salbuespenezko botereak hartzeko erabakiak hartu dituzte. Herritarren mugimenduak murrizteaz gain, agenda autoritarioa besopean agintera heldu ziren hainbat mandatarik, eskumenak pilatu dituzte han eta hemen inor gutxiri azalpen handirik eman gabe. Nehork ezer esan gabe, irakurle konfinatu gehienek Boris Johson, Donald Trump edo Jair Bolsonaro irudikatu dituzte asmo horien sustatzaile nagusi bezala. Covid-19ak eragindako larrialdiaren harira erakutsi dituz-

Konfinamenduan garatutako defentsa komunitarioa tresna egokia izan daiteke, behin sukarraldia gaindituta, eredu publikoaren goraipamen «apolitikoak» engaiamendu sozial bilakatzeko

ten joerek horrela pentsatzera eramaten dutelako. Azken finean, baina, galdera nonahi dago mahai gainean: agenda autoritarioaren loratzea ekarriko du krisiak edo, alderantziz, lemazain horien –eta hurbileko beste batzuen– anbizioak kamustuko ditu? Askatasun gosea berpiztuko zaigu edo inolako gogoeta kritikorik egin gabe onartuko dugu luzaroan hegala moztea, ez oraingo testuinguru berezian, baizik eta aurrera begira ere?

Publikoaren balioa azalean utzi du izurriteak. Emmanuel Macron bezalako ultraliberal bat ere eremu pribatuan eskua sartzeko aukera ahotan hartzera heldu da. Behin sukarraldia gaindituta, orain garatutako defentsa komunitarioek berreskuratze soziala ekar dezatela. •

ETIOPIA

Langileen haserreak Gobernuak abian jarritako industrializazio prozesua mehatxupean du

 **EKONOMIA /** France-Presse

Bizimodu hobea aurkitu zuelakoan zegoen Zemen Zerihun 22 urteko gaztea, bere nekazari giroko jaioterria utzi eta Etiopiako hegoaldean dagoen Hawassako eremu industrialean ehungintzan lanean hasi zenean. Lanpostua zeukan eta hori ospatzekoa da!

Baina handik hilabete batzuetara, langile gazteak egiten zituen kontuak erabat ezberdinak ziren: astean sei egunetan, egunean zortzi orduz eta baldintza oso kaskarretan egiten zuen lan eta sekulako estresa eragiten zion bizimodu berriak. Gainera, lanean aritzeagatik hilean ordaintzen zizkioten 31 euroak ez ziren nahikoa modu duinean bizi ahal izateko. «Ikuskatzaileek abere bat izango bazi-na bezala tratatzen zaituzte –azaldu du–. ‘Mantsoegia, alferregia’, oihukatzen ziguten ekoizpen katearen erritmoa zertxobait motelduz gero. Komunera ere gure atzetik etortzen ziren, beharrezkoa baino denbora gehiago pasa ez genezan. Gaizki pasa nuen», esan dio France-Presse agentziari.

ESKULAN MERKEA

Etiopiako agintariek bolada honetan beren aurrean duten erronka nagusienetako bat da Zerihunen hausnarketek ilustratzen dutena. Beren helburua herrialdeko industria garatzea da, nekazaritzarekiko menpekotasuna hain handia izan ez dadin. Txinako eta Asiako beste herrialde batzuetako eredua dute buruan etiopiar agintariek: atzerriko inbertsioak erakartzeko, eskulan merkea eskaintzen zaie. Gobernuak uste du gauzak horrela eginda, manufaktura-

Etiopiako agintariek beren aurrean duten erronka nagusienetako bat da langile gazteek lanari eustea, soldata hobeak exijitu gabe. Beren helburua herrialdeko industria garatzea da, nekazaritzarekiko menpekotasuna hain handia izan ez dadin. Txinako eta Asiako beste herrialde batzuetako eredua dute buruan.

sektore indartsu bat zutituko dutela, eta gazteei lana emanez, protesta giroa baretu egingo dutela, batez ere abuztuan egitekoak diren hauteskundeei begira.

Etiopia osoan hamabi eremu industrial handi daude

Makina bat etiopiar gazte Hawassako lantegi batean, iazko urrian egindako argazkian.
AFP

gaur egun eta horiei esker dozenaka mila lanpostu sortu dira. Hala ere, eskualdeko gazte guztiak ez daude edozein baldintzatan lan egiteko prest. Langabezia tasa handia izan arren, ez dute lanean soldata ziztrin baten truke egin nahi.

Ezta baldintza negargarrietan ere. Horietako milaka etiopiarrek esaten dute nahiago dutela lanik gabe segitu.

AGINTARIAREN KALKULUA

Hawassako eremu industrialean bertan egoera horren adibiderik garbiena dugu: 2017an eta 2018an, bertako langile guztiak (%100) aldatu behar izan zituzten, New Yorkeko Unibertsitateko Stern Negozio eta Giza Eskubideen Zentroak iazko maiatzean argitara eman zuen txosten batean irakurri daitekeenez.

Kontratazio berriak, eta langile horiei beharrezkoa duten



gaitasuna ematea, Gobernuak aurreikusi baino askoz ere garestiago atera zitzairen, txostenaren arabera.

Abiy Ahmed lehen ministroak esan izan du eremu industrial berriek hazkunde ekonomikoa eragingo dutela Etio pian, eta horrela herritarren haserreak, istiluek eta matxinadek behera egingo dutela, abuztuan egingo dituzten hauteskundeei begira.

KOSTA AHALA KOSTA

Arkebe Oqubay Etiopiak jarraitzen duen estrategiaren diseinatzaileak emandako informazioaren arabera, 2014an konturatu zen Gobernuak nekazaritza ez dela gauza herrialdeak beharrezkoak dituen lanpostu guztiak sortzeko. Populazioa etengabe hazten da eta nekazaritza izan da beti langile gehien hartzen duen sektorea. Abiy Ahmed agintera iristeko lau urte falta ziren oraindik.

Munduko Bankuaren arabera, urtean bi milioi gazte iristen dira herrialdeko lan merkatura. Iturri berak eranstean du Etiopiakoa dela Afrika osoko hazkunde ekonomikorik ikusgarriena.

Baina agintariak ahalegintzen diren arren, gaur egun manufaktura-sektorea herrialdeko jarduera ekonomikoaren %10era baino ez da iristen. 2017an jarri zuten abian Hawassako gune industrialala, Etiopiako proiekturik ezagunena, enblematikoa: AEBetako, Europako eta Asiako 52 lantegi abian, guztiak ehungintzan. 30.000 langile kamisetak eta kirol arropa ekoizten, gau eta egun, etengabe. Arkebe Oqubayk aurreratu duenez, Etiopia osoan beste 29 eremu industrial eratuko dituzte urtea bukatzerako. Makineria eta infor-



Zemen Zerihun 22 urteko gaztea, Hawassan zuen lana utzi ondoren.
AFP

mazioaren eta komunikazioaren teknologian ere bai, ez ehungintzan bakarrik.

Gobernuaren estrategia horrek dagoeneko fruitu batzuk eman ditu. Kanpotik iritsitako inbertsio zuzenak 3.900 milioi eurora ailegatu ziren 2017an, hau da, bost urte lehenagoko kopuruak laukoiztu ziren.

ESKLABOTZAREN PARE

Teoria hutsean Exekutiboak egindako irakurketa zuzena da, baina langileek hain gutxi kobratzeak herritar asko kezkatuta dauzka.

Stern Zentroaren arabera, Hawassako ehungintzan ari diren langileak munduan gaizkien ordainduta daude, dirak: 23,4 euro hilean.

Hala ere, hain gutxi kobratzea ohikoegia da Etio pian. Gogoan izan behar da gutxieneko soldatarik ez dagoela. Industrializazioaren izenean es-

klabotzaren pareko maila batera eramandako langile horiek larri ibiltzen dira janaria ordaintzeko, garraioarengatik eta alokairuarengatik eskatzen dietena emateko. Estu-estu eginda bizitzera behartuta egoten dira horietako asko, etxebizitza txikiegietan, lagun gehiegi sartuta. Eta bat esnatzean, ohea utzi eta beste bat barrura.

Lana utzi zuenetik zortzi hilabete pasa direnean, Zemen Zerihunek lanik gabe jarraitzen du. Baina hartutako erabakia ez zaio batere damutzen. Familiaren etxean nekazaritzan aritzea nahiago du, lantegian saiatzea baino. «Industriak» garai batean agindu ziona, maila sozialean gora egingo zuela, gezur hutsa zela koan dago gaur egun.

Medihant Fehenek ere Hawassan zuen lana uztea erabaki zuen. «Goizaldeko bost eta

erdietan autobusa hartzeko oso goiz esnatzen nintzen. Goizeko seietan hasten nintzen lanean. Eta arratsaldean tokatuz gero, ia gauerdia arte ez nintzen etxera bueltatzen, oso ilun zegoela alegia, emakume batentzat kanpoan ibiltzea arriskutsuegia den garaian».

Oso bestelako diskurtsoa du Tony Kao JP Textile konpainiak arduradunak. Berak nabarmentzen du nekazaritza utzi eta industrian hastea oso zail egiten zaiela langile askori: «Industrian egin behar duten lana ikastea, esaterako, asko kostatu zaie. Garaiz iristea da ikasi behar duten lehen gauza. Eta gero, teknika berriak ezagutu, makineria nola erabili adibidez. Beraien bizitzan kapitulu berri bat da».

Gobernuak langileen haserreari arrazoiak kendu nahi izan zizkion eta enpresei lurrak eman zizkien langileentzat lo-



Langileak nola dauden eztabaidatzeak luze joko luke. Ehungintzako konpainiek sekulako irabaziak ateratzen dituztela ez du inork zalantzan ipintzen ordea. «Etiopia arropa ekoizpenaren etorkizuna da. Mundu osoa hona begira dago orain», nabarmendu du Raghavendra Pattar Nasa Garment PLC konpainiako zuzendariak harro.

LANGILEAK ANTOLATU

Hawassako langileek ez dute benetako ordezkariarik. «Langileen kontseiluak» daude, baina horiek konpainietako nagusiek langileak mendea edukitzeko tresnatzat hartzen dira.

Etiopiako Sindikatuen Konfederazioak egoera hori aldatu egin nahi du. Ayalew Ahmed presidenteordeak aurreikusita du aurten bertan Hawassako langileak antolatzeko ahaleginak abian jartzea: «Konpainietako arduradunek beren enpresatan sindikatuak onartzen badituzte, ondo egongo da. Bestela, enpresetatik kanpo sortuko ditugu».

Teorian, Gobernuak bat egin du langileek antolatzeko duten eskubidearekin. Baina lantegien eguneroko martxa ezin dute kaltetu, Eyob Tekalign Tolina Finantza ministroak ohartarazi duenez.

France-Presse agentziak Hawassan pasa zuen goizean dozenaka lagun ikusi zituen bertan lanean hasteko prest, izena emateko errenkadan jarrita. Tekle Baraso Bonsak 22 urte ditu eta noizbait lana utzi eta Unibertsitatera joan nahi duela esan digu, baina bertan ikasi ahal izateko «Hawassan irabazten ditudan 30 euroak garrantzitsuak dira. Bestela oinetakoak garbitzen ibiliko nintzateke kalean, gutxiago irabazteko».



Langileak nola dauden eztabaidatzeak luze joko luke. Ehungintzako konpainiek sekulako irabaziak ateratzen dituztela ez du inork zalantzan jartzen. Irudiok ere Hawassan hartutakoak dira.
AFP

gela merkeak eraiki ditzaten, Arkebe Oqubayk adierazi duenez. Etxebizitzaren arazoa konpontzen lagundu, soldata igo gabe lanean jarrai dezaten. Gaur egun lehen ministroaren aholkulari berezia den gizonak langileei gutxi pagatzea defendatzen du, hori baita Etiopiako kanpoko inbertsioak erakartze-

ko duen tresna bakarra. Gogorazten du beste herrialde askotan industria jarduera askoz ere indartsuagoa dela. «Soldatak altuegiak badira, inbertsioak ez zaizkigu iritsiko eta ez da lanposturik sortuko. Langileen bizimodua hobetzeko onena norberaren produktibitatea handitzea da», erantsi du.

«Etiopia arropa ekoizpenaren etorkizuna da. Mundu osoa hona begira dago orain», azaldu du Raghavendra Pattar Nasa Garment PLC konpainiako zuzendariak harro

Etiopiako Sindikatuen Konfederazioak egoera aldatu egin nahi du. Aurreikusita du aurten bertan Hawassako langileak antolatzeko ahaleginak abian jartzea



Mohammed HUWAIS | AFP



IKUSMIRA

LANTEGI ZAHARRA BERRIZ LANEAN YEMENEN

Bestelako ekonomia bat eskatu du aste honetan Isidro Esnaolak GARA egunkarian, koronabirusak eragindako mugimendu, agindu eta kezkak azaltzean. Aldi berean, gerrak erabat txikitutako Yemenen hogeitakumek herrialdeko lantegirik zaharrena ireki dute berriro, nikab ilunak eta eskularru zuriak jantzita, josteko makinen gainean makurtuta seme-alabak babesteko maskarak egiteko. Osasun sistema erabat txikituta duen herrialdean dagoeneko ez zuten maskararik ekoizten: lantegi hori orain hamarren bat urte itxi zuten, edozein gauza izanda ere inportatzea merkeago ateratzen baitzen. «Produktzio sarea deslokalizatu eta gehiegi espezializatu den ekonomia bat edozein aldaketaren aurrean erabat ahulduta geratzen da, koronabirusaren zabal-kuntzak eta berehala sortutako babes eta higiene produktuen eskasiak agerian utzi dutenez», idatzi zuen Esnaolak. Yemengoa adibide bat baino ez litzateke. Faten al Masudi argazkiko langileak horrela esplikatu du: «Jainkoari esker, izurritea iritsi baino lehen hasi gara maskarak egiten». joseangel.oria@gaur8.info

GUATEMALA

Maijen idazkera sistemaren hasieraren berri eman du orain 2.000 urte grabatutako estela batek

Guatemalako hego-mendebaldean aurkitu berri duten estela bat orain 2.000 urtekoa da eta, adituek jakinarazi dutenez, maijen zibilizazioak garatu zuen idazkera sistemaren lehen urratsen berri ematen digu.

El Asintal udalerrian dago Tak'alik Ab'aj aztarnategi eko-logikoa, Guatemalako Hiritik 125 kilometrora, hego-mendebaldean. Eta bertan aurkitu zuten 2018ko irailean 87. zenbakidun estela.

Nikolai Grube epigrafista alemaniarrek uste du «maijen idazkeraren sorreraren adibide» bat dela aurkitutakoa. «87. zenbakiko estela ikaragarri garrantzitsua da, Mesoamerikan garatu zen idazkeraren adibide goiztiarra delako. Tak'alik Ab'aj bertan hasi ziren idazkerarekin esperimenduak egiten», adierazi zuen adituak Mexikotik, Guatemalan bertan bideokonferentziaz jarraitu ahal izan zen ekitaldian.

TESTU GOIZTIARRA

Hieroglifoek «irakurketa linguistikoa» egitea lortu ez badute ere, alemaniarrek uste du monumentu oroigarria agintari baten aldekoa dela, bere izena eta tituluak azaltzen baititu. Gruberentz iritziz, «testu maia goiztiar bat» uzten du agerian estelak.

Tatiana Proskouriakoff epigrafistak ere adierazi izan du maijen estelak agintari jakinen aldekoak izaten zirela, agintarien edo beren ondokoen aldekoak. Orain urte batzuk adituek uste zuten erlijioarekin

 **KULTURA /** joseangel.oria@gaur8.info

Harkaitz natural batean orain bi mila urte inguru grabatutako hieroglifoek maia zibilizazioari buruzko informazio ugari eman diete arkeologoei. Aipagarria da haien idazkera sistema, kolonurreko Amerikan erabat garatu zen bakarra izan zelako. Unescok aurkikuntzaren garrantzia onartzea nahi dute orain.

lotuta zeudela oroigarriak, jaingo edo apaiz jakinekin, baina aztertzen dituzten estelak erakutsi zieten hipotesi hura ez zela zuzena.

Kristo aurreko 100. urtekoa da altxorra, gutxi gorabehera, 300 urte lehenago hasitako maia zibilizazioaren Aro Aurreklasikoaren azken zatikoa alegia. Harkaitzean grabatuta dago. Tak'alik Ab'aj hiri bat zen garai hartan. Kristo aurreko 1500. urteaz geroztik olmekak bizi ziren bertan (Kristo ondorengo 100. urtera arte) eta maiak, berriz, Aro Aurreklasikoko Kristo aurreko 800. urtetik aurrera. Mendeak egin zituzten olmekak eta maiek hirian elkarrekin bizitzen: olmekak desagertu egin ziren eta maiek euren zibilizazioaren punturik gorenerainoko bidea egiten jarraitu zuten.

«LABORATEGI BAT»

Christa Schieber arkeologo guatemalarra da aztarnategiko koordinatzaile teknikoa. Bere ustez, Tak'alik Ab'aj maijen idazkerarekin «esperimenduak» egiteko «laborategi» bat izan zen. Idazkera hori geroztik aldatzen joan da, denboraren poderioz.

Orain zortzi urte, 2012an, herrialdeko arkeologoek Tak'alik Ab'aj bertako errege boteretsu baten hilobia aurkitu zuten le-

Tak'alik Ab'aj aztarnategi arkeologikoan aurkitu duten orain dela 2.000 urteko estela garaiko agintari baten aldeko oroigarria zen.

AFP



ku berean. Adituek ez dute baztertzen errege hura izatea olmeka kulturaren bilakaera ahalbidetu zuena, maijen idazkera sistemari ateak zabalduz.

Alejandro Giammattei Guatemalako presidentek jakinarazi du Unescoren munduko ondareen zerrendan leku arkeologikoa sartzeko eskatuko diola Nazio Batuen agentziari.

Maiena Mesoamerikako zibilizazioa izan zen, espainia-

rrak Ameriketara iritsi aurretik maia herriek garatu zutena. Beraien idazkera sistema nabarmentzeko modukoa da, kolonurreko Amerikan erabat garatu zen bakarra izateagatik. Baita maijen artea eta arkitektura ere, matematikan eta astronomian zuten ezagutza handia ahaztu gabe. Kulturamaia egungo Mexikon, Belizen, Guatemalan, Hondurasen eta El Salvadorren hedatu zen.

Barnetik

**Maider Iantzi
Goienetxe**

Balkoian, eguzki argitan ekin diot zutabe honi. Inguruan jende gehiago ikusten dut antzera, bitaminaz elikatzen. Soinu bakarrak, txorien txorrotxioa eta eltze hotsa, bazkalorduaren seinale. Aspaldi GAUR8ko txoko honetan kukurik egin gabe. Egia erran, hilabete baino gehiago eman nuen udazken-neguan idatzi gabe; barnera so.

Ez zitzaidan ateratzen, eta arraroa egi-ten zitzaidan, oroitzen naizenetik izan dudalako barrenak paperean askatzeko ohitura. Beharra. Grina. Baina oraingoan ez. Ez kontatzekorik ez nuelako; justu

kontrakoa. Barne iraultza bat hasia nuen.

Bidaia horretan, segituan agertu zitzaizkidan betiko ikasgaiak: beldurrak kudeatzearena, nire burua ezagutzearena, garrantzitsua dena eta ez dena bereiztearena, bertzeen beharra dudala ohartzearena. Kanpotik begiratuta ez nintzen aunitzik mugitzen; barrutik, ordea, izugarri. Ametsak horren isla ziren. Mugimendu horiek guztiak ametsetan gauzatzen ziren.

Barrenean zu deskubritzearekin bate-ra, ni haurra ere ikusi dut, eta ni gazte-txoa, eta ni lan munduan sartu berri-

tan... Aldatu naiz, baina berbera naiz. Al-di ezberdinetako niei begiratu eta iden-tifikatu egiten naiz.

Poliki-poliki “berrogeialdi” hura buka-tzen ari zela sentitu nuen, eta ateratzen hasi nintzen, konpartitzen. Lehenengo batekin, ongi sentitzen nintzela eta ez zela deus pasatzen ikusita bertze bate-kin... behar nuen erritmora.

Gustura nenbilen berriro kalean, jen-dearekin harremanetan... harik eta, us-tekabea, bertze berrogeialdi bat etorri den arte, oraingoa orokorra. Nire espe-rientzia xumetik, animo! Badugu ohi-tzeko gaitasuna, barnera zein kanpora. •

Lainopean

**Xabier Mikel
Errekondo**

Koronabirusak harrapatu gaitu bere atzaparretan, eta lainotzar beltzaren ilunpean gabiltza itsutasunean, besterik ez baili-tzan lez. Ala agian bai, agian usaintzen dugu Zaldibarko zein Zubietako erraus-tegiko dioxina-kiratsa. Norbere etxeeta-tik, Urkullu lehendakariak ezarri berro-gei aldian.

Herritarren osasuna dago jokoan, hel-duena bereziki, bai, baina tokian-tokian bada egoera kaltegarri honi onurarik ateratzen ari zaionik ere. Zer gehiago ez-kutatzen du lainotzarrak? Birus nimi-ñoa hainbat arazo erraldoi ari da estal-tzen. Ohikoa, manualekoa izaten da

agintariek arazo baten presioa gainetik kentzeko herritarren atentzioa bigarren arazoren batera desbideratzeko taktika, ahalegin horretan krisi berri bat sortu behar badute ere.

Eta ez naiz ari ustelkeriaz, egun herri-tarrei gehien kezkatzen dieten gaiez baizik: lan baldintzen duintasuna eta arrakala, eta herritarren osasuna arnas-tean, edatean eta jatean.

Zaldibar argitu! Zubietako erraustegia ez ireki! Erresidentzietako langileak... Baina konfinatuta egonik ezin jarraitu antolaketa sozialarekin, ez protestekin.

Eta negozio ttipiak itxita dauden bi-tartean enpresa handien irabaziak ja-

rrai dezaten milaka langile elkarren on-doan lanera behartuak... agintarien beti-ko leloa. CAF, Mercedes eta beste enpre-sa hainbateko langileen duintasunak soilik apurtuta.

Lainotzarpean Netflixek ito baino le-hen heldu elkartasunari eta eman irudi-menari. Irudikatu Zaldibarko langile biak beren senideekin, irudikatu erraus-tegia itzalita, birziklatuta eta aire garbia geure inguruan.

Atera leihora, bidali begirada iraindua Jaurlaritzari eta Aldundiari, eta egin txalo Zololuzetarrei, Beltrandarrei eta Zaldibar eta Zubieta inguruko herrita-rrei. •



Ander Gortazar Balerdi - @derzu_uzala
Arkitektoa

Airea sar dadin

1 853ko martxoan eman zuten estreinakoz «La traviata» opera, Giuseppe Verdiren musikarekin, Veneziako La Fenice antzokian. Parisen dago girotua eta Violeta Valery gortesaua du protagonista nagusia, zeina, funtzioaren amaieran, tuberkulosiak jota hiltzen den. Paris, XIX. mende amaiera eta tuberkulosia. Ez da kasualitatea.

Covid-19a ez bezala, tuberkulosia ez da birus bat, mikrobakteriek eragindako gaixotasun infekziosoa baizik, eta oso ohikoa izan zen XIX. mendearen bukaerara arte. Hiribildu dentsoak, argiztapen eta aireztapen eskasa, saneamendu-azpiegiturarik ez... Testuinguru horretan jaio zen mugimendu higienista, arkitekturan eta hirigintzan higieneari garrantzia berezia ematen zion korrontea.

Har dezagun Paris. Hiriaren garapena hiri zaharraren dentsifikazioan oinarritu zen historikoki. Baldintza hi-

gienikoak nabarmen eskasak ziren auzune itogarrietan eta ideiak behar ziren airea sar zedin. Kaleak estuak ziren, eraikinak gero eta altuagoak eta gero eta herritar gehiago pilatzen zen bertan, pobreak batik bat, aberatse- nek harresiez gaindiko *faubourg*-etara egin zutelako ihes. Hala, Paris erdigungea pobretze fase batean sartu zen, eta ondorioz, baita gatazka sozial fase batean ere (oroit dezagun: Parisko Komuna, 1871). Teoria higienistak eta gatazka sozialaren kudeaketa, biak hartu behar dira kontuan XIX. mende amaierako (eta XX. mende hasierako) hirigintza europarra ulertzeko.

Jarrai dezagun, beraz, Parisekin, ordukoak baitira Frantziako hiriburua goitik behera aldatu zuten hirigintza planak. Georges-Eugène Haussmann-en zuzendaritzapean hiri egitura erabat aldatu zen: fatxaden araudia ezarri zen, espazio berdeak eta hiri-altzariak diseinatu ziren, estolderia eta ur-hornikuntza sarea eraiki zen eta, seguruenik neurri ezagunena

dena, egun hain paristarrak iruditzen zaizkigun bulebarrak ireki zituzten.

“Ireki”. Zalantza izan dut aditzarekin. Deformazio profesionala da seguruenik, horman zuloa egin eta leiho batekin ordezkatzeari “leiho bat ireki” esaten dion gremio batekoa naiz eta. “Ireki” aditzak badu eufemismotik asko testuinguru higienistan, bulebar bat irekitzeak auzo baten suntsiketa esan nahi baitzuen eta, ondorioz, baita bertako biztanleriaren lekualdatze behartua ere. Hala egin zuten Parisen bulebarrekin, Madrilen Gran Viatekin, Bartzelonan Via Laietanarekin eta Europa osoan zehar ehunka hiri-biderekin.

Nola esan, kontinente zaharrean hiribideak ireki zituztela hiriari barre-nak hustuz, txerriei tripak nola, ita-lieratik hartutako mailegu ezin ederrago batek izendatzen duen teknika erabiliz: «sventramento». Alegia, literalki, erraiak erauztea. Tri-pak ateratzea, airea sar dadin. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi Berastegi**

Koronabirusaren kultura berriak historia aldatu du

Larreostia da dena. Hasi besterik egin ez den zientzia-fikziozko pelikula beldurgarri bat erreal-erreal bihurtuta. Eta ikara irrazionalen erosle konpulsiboak garela kontuan hartuta, eta etorkizunean baino orainean ardaztu beharra daukagunez, pandemia historia nola aldatzen ari den lekuko gara, giza eboluzioaren jauzi handi baten zuzeneko ikusle. Eta ez hori bakarrik. Koronabirusaren kultura berri bat sortzen ari da, bat-batean, modu kreatiboan, publikoaren beldurrei, eguneroko bizitzaren murrizketei eta berrogeialdiaren isolamendu aspergarriari aurre egiteko.

Ez zait iruditzen pandemiak ausazko gertakariak, aleatorioak, direnik. Ez dira kaotikoak, ez diete gizartei kapritxoz erasotzen, aurrez ohartu gabe. Kontra-koa esango nuke. Gizarte orok sortzen ditu bere zaurgarritasunak, bere puntu ahulak, bere egiturak, jendearen bizimoduek eta lehentasun politikoek sortu ere. Eta mikrobioak selektiboki hor zabaltzen dira, hortik barreiatzen dute beren burua, guk sortutako nitxo ekologiko horietan. Kolera eta tuberkulosia, adibidez, gaur egungo pobrezia eta ezberdinkeria sozialaren arrakaletan zehar mugitzen eta hazten dira. Eta jakina pandemiak beren txikitasunean gauza handi-handiak egiteko gai direla, horixe dutela izurriteek historia aldatzeko ahalmena. Kontinente batzuen populazioa erdira murriztu zuen izurri bubonikorik gabe, adibidez, iraultza industrialik ez zen izango. Napoleonen soldaduak hil baina immunizatutako esklabo afrikarrak hiltzen ez zituen sukar horirik gabe ez zen esklabotzaren amaiera etorriko, edo nekez esplika daiteke Haitiko iraultza eta independentzia. Covid-19 birusa ez da salbuespena izango. Historia aldatuko du, aldatzen hasia da.

Planetan zehar gizakiok egiten dugun bidaiaren nondik norakoa aldatzeko indarra dute pandemiek

eta espezie bezala, ohikoagoak bilakatuko diren heinean, prozesu ebolutibo sakona aurrera eramatera behartuko gaituzte. Superbibentziarako eboluzionatu beharko dugu. Tradizioak garatu egiten dira denbora bakoitzaren ekologia eta biologiara egokitu ahal izateko. Maila txikian bada ere, jada erritualen eboluzioa martxan da.

Niretzat harrigarria eta aipatzen ari garen guztiaren adibide esanguratsua da jendeak elkarri bostekoa emateari utzi izana. Aspaldi-aspalditik konfiantzazko keinua zena, egun, gaitza transmititzeko bidea da. Baina hain gara espezie soziala, oso gogorra zaigula elkar ez ukitzea. Gure komunikazioaren parte handi batek elkar ukitzearekin zerikusia du. Eta nola ez dugun baldintza berriotan jokatzeko konbentziorik, ohitura kultural, trikimailu eta memoria berriak garatu beharko

Ohitura, trikimailu eta memoria berriak garatuz gabiltza. Ukondoekin elkar agurtzen dugu, eta, akaso, Covid-19ak bostekoa ematearen akabera ekarriko du

ditugu. Jadanik horretan gabiltza, esperimentu betean. Ukondoekin elkar agurtzen dugu dagoeneko, eta, akaso, Covid-19ak bostekoa ematearen akabera ekarriko du. Posible da. Testuinguruak markatzen ditu jokakerak. Eta bostekoa emateak, konfiantzazko keinua zena, birus hilgarria transmititzen baldin badu, gure konfiantza-markatzaileei eragiten die ezinbestean.

Presidenteek nahi dutena esan dezakete baina ezin dute birusaren biologia aldatu eta hedatzen segituko du. Neurri egokiak hartzen badira denbora irabaziko da, motelago hedatuko da, baina bere biologia aldatu ezinean segituko dugu. Noiz arte? Aurrekaririk gabea, lorpen iraultzailea litzateke urtebetean beharrezko lizentziekin globalki ekoizitako txertoa garatzea. •

«ATTONA» MAXIMOREN BIHOTZEKO MAPAK

Iñaki Sanz-Azkue

Mapa guztiak ez dira berdinak. Ez ingurunea ezberdina delako bakarrik, baizik eta mapa egiten duen pertsona bakoitzak ez duelako modu berean ikusten bere ingurua. «Attona» Maximo oraindik ere natura irakurtzen zuten pertsonen belaunaldikoa zen, inguratzen zuen paisaia begiratzeko modu berezia zuena; eta hala islatzen dute 80ko hamarkadan bere etxeko egongelan marraztu zituen mapak.

Euskal gizartearen hiritartzearekin batera etorri da naturari loturiko ahozko transmisioaren etena, eta bidean galdu dira paisaia kulturalaren parte ziren leku-izenak, kondairak eta nork jakin zenbat ondare. Maximok apustu propioa egin zuen, eta bere herriko, Hondarribiko, hainbat mapa marraztu zituen, inork eskatu gabe.

Ondarea maite duen edozein pertsonarentzat, altxorrez beteriko planoak dira. Izan ere, *attona* Maximoren bihotzeko mapak ondarearen gordailu ederrak dira, baina ez hori bakarrik: aurkikuntza berri eta eder bat egiteko tresna ezin hobea ere suertatzen ari dira.

Maximo Sagarzazu Ugarte Hondarribian jaio zen, Larramendi-Enea baserrian, 1912an. Hainbat arrazoi direla medio, txikia zenetik Maximok betebeharrantzitsua bete zuen etxean: aitonaren jakintza guztia jasotzearena. Orduak igaro zituen bere aitonarekin XX. mende hasierako Hondarribitik barrena, gora eta behera, herriko eta mendiko bazter txikienetik hasi eta txoko guztietako leku-izen, kontakizun eta jakin beharreko guztiak ezagutzen. Aitaren eta Maximo baino bi belaunaldi lehenago jaiotako bere aitonaren istorioek betetzen zituzten bere eguneko ordu asko, eta, elkarrekin igarotako une horiei esker, duela 200 urteko historia haien jabe bihurtu zuen bere burua. Eta ondo gorde zituen denak. Nola gorde, gainera!

80ko hamarkadan, ordea, Maximok nabaritu zuen jada bere begien aurrean ikusten zuen Hondarribia ez zela bere txikitako herria. Euskal Herri osoan, eta are gehiago Hondarribian, herriko paisaia aldatzen ari zen, eta gizartea hiritartzen. Eta bere inguruneari, naturari loturik bizi izan zen herriak bizitza begiratzeko betaurrekoak aldatu zituen. Belaunaldiz belaunaldi, ahoz aho igarotako ondareak



Maximo Sagarzazu Hondarribiko Larramendi-Enea baserrian jaio zen. Irudian, aitona eta bi biloba ageri dira. Bi mutikoetako bat da Maximo.
SAGARZAZU GONZALEZ SENDIA

ez zuen lekurik testuinguru berri hartan. Maximok urteetan jasotako jakintzak berarekin desagertzeko arriskua zuen, eta horren jakitun zen. Ondare oso bat zuen buruan, eta gehiegizko zama zen guztia berarekin galduko zela jakitea. Hori horrela, pausua ematea pentsatu eta mapak marrazten hasi zen Maximo: bere bihotzeko mapak.

Mimoz eta zehaztasun ikaragarriaz 17 plano ezberdin egin zituen. 80ko hamarkadan, aitonarekin ezagutu zuen XX. mende hasierako Hondarribia zuen buruan, eta hala marraztu zituen mapak: eskuz, baina bihotzarekin. Hori gutxi ez, eta Maximok 15-20 koaderno inguru ere idatzi zituen, Hondarribiko auzo guztietako baserriak banan-banan hartu, eta horien historia eta istorioak kontatuz. Ez edozein modura gainera: prosa eta bertsoak partekatu zituen hori egiteko.

NATURA IRAKURTZEN DUTEN BEGIAK

Prosa eta bertsorik ez. Hitzak, alabaina, badira Maximok marrazturiko mape-tan: hitzak eta marrazkiak. Baina, zer



da *attona* Maximoren mapak horren bereziak egiten dituen hori?

Hartu, irakurle, minutu erdi irakurtzen jarraitu aurretik, eta hausnartu: zure herriko planoak egin beharko bazenu, zer marraztuko zenuke? Zer da zure begiek ikusten dutena? Zer da zure buroak gordetzen duena?

Maximok egindako planoek begirada ezberdin bat dute. Natura irakurtzen duten begiekin egindakoak dira. Fokua herrian, eraikuntzetan eta errepideetan baino, paisaian jartzen dutenak. Bera bizi zen ingurunearekin lotura estua zuten belaunaldikoez zuten begirada bera zuen. Natura zegoen erdigunean.

Egungo hiritar baten ikuspuntutik oso zaila suertatzen da herriko erdigunetik kanpo dagoena marraztea. Dena baita belarra edo basoa ezberdintzen ez dakiten begientzat. Txori guztiak dira “txori”, eta paisaia gizakiak bizitzeko duen atze-oihala.

Natura irakurtzen zuten begiek, ordea, beste modu batera ikusten zituzten gauzak. Ezberdintzen zituzten lan-



dareak, basoak, arrantzatzeko arroka onak, eta iratzea eta otea mozteko gu-
ne aproposak. Naturatik ateratzen zi-
tuzten bizirauteko baliabide asko, eta,
horretarako, ezinbestekoa zen inguru-
nea ondo ezagutzea: irakurtzea.

IKARAGARRIZKO INFORMAZIO PILA BILDUTA

Hala, ez da harritzekoa egun Maximo-
ren mapa hartzen duen edonork txun-
dituta begiratzea hark egindako lanari.
“Lupa”-rekin begiratutako paisaia ma-
rraztu zuen: bizi oso bat herri batera
murriztuta zegoen. Maximoren mun-
dua plano bakarrean erakusten zuen.

Planoen artean batzuk Hondarribia
osokoak dira. Besteak, berriz, herriko
eremu batekoak baino ez. Baina guz-
tiek ezaugarri bereizgarri bat dute: ika-
ragarritzko informazioa. Maximok bu-
ruz egin zituen denak. Banan-banan
marraztu zituen herriko etxe eta base-

rri guztiak. Horietako gehienak euren
izenarekin, eta horietara iristeko bide,
bire xiorrak, gurdibiriak, erri biriak eta
bide-gurutzeak ezberdinduz. Bertan
ikus daitezke ere herriko harrobiak zi-
renak, baserri bakoitzaren *gobara-ittu-
rriak* eta herriko erreka guztien ibilbi-
deak marraztuak, horien iturburu edo
Maximok jartzen duen moduan, *ur-be-
giekin*. Iturriak, arrazkak, desagerturi-
ko putzuak... denak daude ezberdin-
duak eta zeuden lekuan jarriak.


Edozeinen begietara, ordea, beste
gauza askok ere deitzen dute arreta.
Esaterako, Jaizkibel mendia eta Jaizu-
biako paduretako eremu ezberdinei
buruz ematen duen informazioak. Dei-
garria da mapan zehar aurki daitekeen
leku-izen edo toponimo kopurua. Jaiz-
kibelgo kostako lerroa jarraituz soilik,
itsasoari begira dauden arroak baka-
rrik kontuan izanik, 150 leku-izenetik

gora kokatzen ditu, bakoitza dagokion
tokian, eta askotan dagokion arrokan
bertan. Mendian barrena eta baserri
eremuan sartuta, izen kopurua lau-
koiztu egiten da erraz: kontaezinak di-
ra bertan agertzen diren toponimoak.
Baina hori gutxi balitz, itsas labarreko
gune batzuetan marearen arabera
arroak maila ezberdinetan marrazten
ditu euren izenekin. Alegia, marea go-
ran ala beheran izan, ikusten diren
arroak ezberdinak dira, eta beraz, to-
ponimoak itsaso barruan geratzen di-
ra. Eta horietan, itsasertzeko arroka ho-
rien izenetan, badira sarri errepikatzen
diren hitzak: *arri, xabal, altua eta plan-
taña*, esaterako. Baina, *plantaña*? Zer
da *plantaña*?

NATURA IRAKURTZEN DUTENEN HIZTEGIA

Plantaña edo *plantaina* lurretik itsaso-
ra sartzen den harri orrazea da. Nor-

Lerroon gainean, ezkerretara, Maximo
Sagarzazuk Hondarribiko xehetasunez
beteta idatzitako koaderno baten
orrialdea. Guztira 15-20 koaderno utzi
zituen. Benetako altxorra. Eskuin
aldean, Jaizkibelen hartutako irudia.
SAGARZAZU GONZALEZ SENDIA
eta Jesus AZKUE



malean aldapaduna. Izan ere, natura irakurtzen zuten begiek, hitzak jartzen zizkieten paisaian agertzen ziren elementu ezberdinei, eta nola ez, bertako animalia eta landareei. Deigarria da oso, Maximok zenbat landare izen izendatzen dituen mapan. Guztiak, noski, Hondarribiko euskaran duten izenarekin: *Itxeberri-goiko txiostua* (huntza), *Martitxeko kaudanak* (gurbitzak), *zaziya* (sasia), *otsolarra* (?), *Iru-kantoiko zeskak* (lezka), *baxa-kañabela* (*Phragmites*-ak), *sabi-belarra* (*Fucus* generoko alga klase bat)... baina, hori gutxi balitz, Jaizkibelen bertan ustiatzeko erabiltzen zituzten guneak izendatzen ditu: *Farolako piñegiya*, *Domingotxoneko gastañegiya*, *Esteusko zagardiya*,

Esteusko oyana, *Ixaneko belar-sorua*, *iratze tokiyak* edota otea jasotzeko guneak ere, “*otaskarako onak*” zirenak. Baina behin lupa jarrita, mapa ikusten duenak luparen maila ere ikus dezake oteei begiratuta. Izan ere, Maximoren-tzat ote guztiak ez ziren berdinak, eta oteen barruan ere ote espezie ezberdinak eta horiek aurki zitezkeen lekuak kokatzen eta aipatzen ditu: *ote suri*ya eta *ote beltxa*. Alegia, *Ulex europaeus* eta *Ulex minor*. Egun, bilatuko bagenu, kostata aurkituko genuke Hondarribian (eta Euskal Herriko herri gehienetan) bi oteak ezberdintzen dituen pertsonarik, eta gazteen artean, otea bera ezagutzen duenik aurkituz gero, gaitz erdi!

Maximo Sagarzazuk 80ko hamarkadan planoetan irudikatutako Hondarribiak eta gaurkoak ez dauka antz handirik. Eta horregatik egin zituen planoak, bere ingurua hiritartzen ari zela konturatuta, bidean jakintza handia galduko zen beldur zelako.

Jon URBE | FOKU

Izan ere, aurretik esan bezala, natura ezagutzeak etxerako gaztainak, iratzea, otea, belarra... nondik hartu jakiteko aukera ematen zuen, eta hori belaunaldiz belaunaldi erakusten zen. Eta gauza bera gertatzen zen animaliekin ere. *Sabi-belarra* jaten duen arraina (“salpa” izenekoa) da *sabia* eta *sabiak* zeuden Jaizkibelgo arroken eremuak *sabi-arri* du izena. Eta planoetan izendatzen dira ere, esaterako, *kardiñeruak iragotzen ziren lekuak* (karnabak pasatzen ziren tokia) edota *uzo-aundi*yak ikus zitezkeenak eta *sube tokiyak*. Baita, *txirla-txuriya*, *karramarruak*, *almeja tokiyak*, *tretxo tokiyak*... edota Hendaiako hareatzetan *txingeruak* eta zariari tiraka ibiltzen zirenak, euren marrazki eta guzti.

Maximok egindako planoek begirada ezberdin bat dute. Natura irakurtzen duten begiekin egindakoak dira. Fokua herrian, eraikuntzetan eta errepideetan baino, paisaian jartzen dutenak. Natura zegoen erdigunean

Sagarzazuren mapak herriko paisaiak urte gutxian izan duen aldaketa ikusteko neurgailu aparta dira, eta, era berean, gizarte baten begirada islatzen duten plano ederrak. Joandako garai baten kontakizuna dira

AURKIKUNTZA EDERRA MAPARI ESKER
Maximo Sagarzazuren mapak, beraz, herriko paisaiak urte gutxian izan duen aldaketa ikusteko neurgailu aparta dira, eta era berean, gizarte baten begirada islatzen duten plano ederrak, egungo ezagutzarekin edozein herritarrek nekez egingo lituzkeenak. Izan ere, Maximoren mapak, igarotako gizarte eta bizimodu baten marrazkiz eta hitzez eginiko kontakizuna dira.

Maximok buruan zuen guztia ez da mapan islatzen, eta bere bilobek ere hala adierazi digute. Hondarribiko mapa egin zenean Juan San Martinek elkarriketatua izan zen, eta sekulako informazioa eman zion herriko leku-izenak bertan kokatzeko. *Attona* Maximo, alabaina, joan zen. 1999. urtean hil zen. Plano moduan utzi zuen ondareak, ordea, oraindik ere ezustekoak emateko asmoa du.

Eta horren adibide da duela gutxi berak buruturiko lanari esker egindako aurkikuntza: mapei esker, errotarriak egiteko erabilitako harrobi zaharra aurkitu da lehen aldiz Jaizkibelen. Errotarriak egiteko harrobiek zituzten berezitasunak kontuan izanda, aurkikuntza ederra da mendiarentzat, eta are gehiago Hondarribiko herriarentzat. Errotarriak egiteko harrobiak ez baitira edozein harrobi, eta ez baitira edozein lekutan aurkitzen. Harri guztiek ez baitute balio errotarriak egiteko, ezta leku guztiek ere. Errotarriak erroten ardatza ziren, eta errotak iragandako gizarte bateko elementu garrantzitsuak; errotarriak, beraz, mimoz eta ondo pentsatuta egin beharrekoak ziren.

1802ko Madozen dokumentu batek aipatzen du Jaizkibelgo harriak errotarriak egiteko aproposak direla, eta bertan egiten zirela. Geroztik ere XIX. mendeko dokumentu ezberdinetan aurkitu zen aipu bera, ziur asko 1802kotik jasotakoa. Baina errotarriak egiten ziren harrobien arrastorik ez zen ezagutzen egundaino Hondarribian. Hondarribiko zaharrenek ere ez zuten sekula entzun inoiz errotarri harrobirik bertan izan zenik, ahozkotasunean informazioa ere galdu egiten baita denborarekin, eta hala esperantza guztiak galduak ziren hori aurkitzeko.

Maximoren planoek, ordea, berriro ere piztu zuten garra. Izan ere, bere mapetako hirutan garbi agertzen da “errotarri” izeneko arroka. Maximok bere aitonatik jaso zuela informazioa jakinda, XIX. mendera egingo genuke salto. Eta hor, mende hasieran aipatzen dira errotarri harrobiak dokumentu zaharretan. Eta non aipatzen ditu Maxi-



Sagarzazuren mapei esker, errotarriak egiteko erabilitako harrobi zaharra aurkitu da lehen aldiz Jaizkibelen. Hautsitako errotarri bat topatu dute Aranzadiko kideek.
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

mok “errotarri” leku-izenak? Non eta marearteko gunean, Euskal Herriko leku gutxitan bezala, itsasotik barrena errotarriak barkuz ateratzeko guneetan. Baina mapez gain, ordea, aurretik Maximori leku-izenei buruz egindako elkarriketa batean ere berak egindako aipamena aurkitu zen: «Bi omen dira [“errotarri” leku-izenaz ari da]. Arrixabal eta Askoandi artean kokatua bata, eta, bestea, Errotazain eta Iruarrita artean».

Pista horiekin guztiekin errotarrien harrobia bilatzeko lehen laginketa adostu zen, eta hala Aranzadi Zientzia Elkarteko Javi Castro aditua, Yoseba Alonso, Ramon Muñoz Maximoren familiaren ordezkari moduan, eta lauok abiatu ginen Jaizkibelera duela hilabete eskas. Eta hantxe, Maximok adierazten zituen leku-izenetatik gertu aurki-

tu zen egundaino aurkitu den errotarri harrobia izandakoaren lehen arrastoa: egiten hasi, baina bukatu gabe zegoela hautsitako errotarria topatu genuen.

Europa mailako errotarrien harrobiak biltzen dituen proiektuaren barnean, 996. harrobia da Jaizkibelgoa. Maparen arrastoak jarraituz, ordea, oso litekeena da oraindik ere harrobi gehiago aurkitzea Jaizkibelgo arroken artean.

Lerro hauek erabili ditzagun, beraz, Maximok bizitzan zehar jaso ez zuen omenalditxoak jaso dezan. Inork baliorik ematen ez zion garaian, ondareari eman beharreko balioa eta garrantzia ematen asmatu zuelako. Eta nola ez, ondare hori guztia etorkizunera igarotzea nahi izan zuelako: atzetik aurrera bidea eginez, *kardiñeruek* Jaizkibelgo zelaia *iragotzen* dituzten bezala.

Mapei esker, errotarriak egiteko erabilitako harrobi zaharra aurkitu da lehen aldiz Jaizkibelen. Errotarriak egiteko harrobiek zituzten berezitasunak kontuan izanda, aurkikuntza ederra da mendiarentzat

Europa mailako errotarrien harrobiak biltzen dituen proiektuaren barnean, 996. harrobia da Jaizkibelgoa. Maparen arrastoak jarraituz, ordea, oso litekeena da oraindik ere harrobi gehiago aurkitzea bertan



Maximo Sagarzakuk 17 mapa egin zituen, eskuz, 80ko hamarkadan. Bere etxeko egongelan osatutako planoek 2-4 metro bitarteko luzera eta 1-2 metroko zabalera dute. Duela 200 urteko Hondarribiaren detaileak modu harrigarrian jaso




JON MAIA SORIA

BERTSOLARIA

Bertsolariak ere isilik daude, plazatik aparte. «Ixolamendua» dei dakioke, zumaiarrak egin duen bezala. Eta «ixolamenduari» bertsoak jarri dizkio. Min bat duenak, ezin batek itotzen duenak, pena bat duenak idatzi dio bertso pertsonalizatu bat eskatuz, sendatzeko ez bada, samurtzeko behintzat.

Amagoia Mujika Telleria

«Bertsoak justu jendeak orain gehien behar duena ematen du; indarra, animoa, maitasuna...»



nuen sarean abeslariak eta kulturgileak proposamenak egiten ari zirela eta okurritu zitzaidan bertsoak eskaintzea beharra duen jendearentzat. Askoz gehiago pentsatu gabe Twitter sarean egin nuen eskaintza eta proposatu nuen mezu pribatu bidez egitea. Gero konturatu nintzen audiorik ezin nuela bidali, ni behintzat ez naiz batere abila gauza horietarako. Hartara, jendeak mezu pribatuen bidez kontatzen dit egoera eta nik bertso bat bidaltzen diet opari».

Ostegunean iritsi zen 100. bertsoa. «Istorio honi esker, 100 kasutik gora ezagutu ditut. Egoera zailetan dagoen jendearen berri izan dut. Oso esperientzia aberasgarria izaten ari da». Normalean, eskatzaileak ez du beretzako eskatzen bertsoa, beste norbaitentzako baizik, salbuespenak salbuespen. «Oraintxe Utrechtetik idatzi dit gazte batek. Han dagoela eta gurasoak eta arreba bisitan joatekoak zirela. Sekulako ilusioa zeukala, baina orain ezin-go dute joan. Sevillako finalera ere etortzekoa zen eta hori ere bertan behera. Udara arte ez dela egongo ez familiarekin ez kuadrillarekin. Eta ezin mugitu gainera. Beretzat bertso bat eskatu dit, behar zuelako».

Egin dituen bertso gehienak behartutako isolamendu honek kaltetutako jendearentzat izan dira. «Dezente izan dira familia elkartu ezin izan den urtebetetzeak eta horietako asko adineko jendearenak. Arrisku handiko taldea da, adinagatik eta osasunagatik, eta bakar-bakarrik daude. Batzuk, gainera, erresidentzietan daude eta ezin dute bisitarik jaso. Egoera oso gogorra da. Haurdunaldi dezente ere ezagutu ditut. Egoera berezia da eta

Gu bertsolariak auskalo noiz arte 'ixolamenduan'. Nire aldetik, egun hauetan gaixotasunagatik baktaria dagoelako edo egun berezi bat ospatzerik ez duenari oparitzeko edota egoera zail batean poz txiki bat eman diezaiokeela uste duenarentzat bertso bat egiteko prest nago». Horrelaxe bota zuen sarean pasa den larunbatean eta espero gabeko bideetatik eramandu bere eskaintza bereziak. «Horrelako egoeratan beti hasten zait burua martxan, zer egin dezakedan ekarpen bat egiteko. Arazo bat ikusten dudanean aktibatu egiten naiz. 'Gustatu' ez da hitza, 'sortu' egiten zait. Ikusi



«Garai ona da kulturaren funtzio sozialaz hausnartzeko. Kanta batek, antzerki lan batek, liburu batek, dantza batek, film batek, bertso batek... jendearen bizi kalitatean daukan eragina nola neurtzen da? Kuantifikatzen al du norbaitek?»

kontu handiz etxean gordeta egon behar dute. Kezka daukate umearen osasunagatik eta jaioko den mundu klaseagatik. Hau esperimentu sozial bat da. Kezkatuta eta triste dagoen haurdun asko dago. Hiletak ere ezagutu ditut. Maite duzun jendea ezin agurtu behar bezala. Asteburuan ezkontza dezente zeuden aurreikusita eta asko bertan behera geratu dira. Horientzako ere eskatu dizkidate. Seme-alabengandik aparte dago kutsatutako jendea. Hilabete inguruan bi urteko semea edo alaba ikusi gabe egon behar duenarentzat bertsoak ere egin ditut. Transplante baten zain dagoen pertsona batentzat ere egin dut. Altsasuko Gurasoek ere eskatu didate. Hainbeste kostatu zaizkien baimenak bertan behera geratu dira orain eta gogorra da hori. Euskal Herriko AEK-k ere eskatu dit, etxean euskara ikasten ari diren ikasleei animoak emateko. Bisitarik gabe geratu diren presoen senideek ere eskatu didate. Zarauzko arraunlariak... askotariko eskaerak jaso ditut».

Maiak ez ditu bertsoak publiko egiten. «Behin bertsoa eginda, ez da nirea, haiena da. Kasu intimoak dira, izenak daude... Kasu askotan jaso dituenak egin ditu publiko. Baina hori haien erabakia da».

PERSPEKTIBA PRIBILEGIATUA

“Ixolamenduaren bertsoak” esperientzia berezia izaten ari da sortzailearentzat. «Ezagutu ditudan kasu horiei esker, perspektiba oso berezia lortu dut. Historikoa, oso garrantzitsua eta hilgarria den zerbait bizitzen ari gara, kolpetik gizarte honen sektore asko larritasun egoeran jarri dituen, zaurgarrienak gainera; pobrezian daudenak, lan prekarita-

tean daudenak, adinekoak, gaixotasun larriak dituztenak, kultur sortzaileak, komertzio txikietatik bizi direnak... Nik horren kontaktu zuzena edukitzea betirako geratuko zaidan zerbait izango da. Perspektiba horrekin pribilegiatua sentitzen naiz eta ondo sentiarazten nau egoera honetan nire ekarpena egin ahal izateak». Bertsoak ba al du sendatzeko

edo ezina samurtzeko gaitasuna? «Ni ikusten ari naiz baietz. Bertsoak pertsonalizatuak dira eta jendeari barrura iristen zaizkio. Nik sinisten dut bertso batek mendiak mugitzeko indarra duela, mundua mugitzeko. Boluntariotza lan bat egiten ari naiz, ahal dudanean saiatzen. Badakit bertsoa ez dela lehen mailako beharra, baina gaizki dagoenari pixka bat laguntzen badio, aurrera».

BERTSOAREN FUNTZIOA

Bertsoa jendartearen eskura. «Nik horrela bizi izan dut gazetetik. Bertsoa tresna bezala, artefaktu bezala, baliabide bezala. Bertsoa salatzeke, adierazteke, aldarrikatzeko... gazte-txotatik nire bertsolari izatetik egin dudak praktika da hori, konpetiziotik edo estetikatik askoz haratago, funtzio sozial hori izan da nire ezaugarri garrantzitsuenetakoa. Eta pozik nago ikusten dudalako jendeak pozik eta esker onez hartzen duela nire bertsoa. Bueltan argazkiak, marrazkiak, bertsoak... iristen zaizkit. Oso polita eta hunkigarria da».

Telebistarik eta albisterik ikusteko tarterik gabe dabil ia, bertsoak egin eta egin. «Oheratu aurretik pixka batean telebista piztu eta iragarkiei begira jarri nintzen bart. Konturatu nintzen iragartzen dituzten gauza denak ez ditugula behar; autoak, lurrinak, bidaiak... Etxean gordeta gaudela eta horiek ez dira lehen mailako beharrak. Eraiki dugun artificio honen produktuak dira. Baina orain, etxean gaudela, zer da oinarritzako behar bat –komuneko paperaz aparte? Bertsoak akupuntura efektu zuzena egiten du, justu jendeak orain gehien behar duena ematen du zuzenean; indarra, animoa, kariñoa, mai-

ETSIPENAREN BIRUSARENTZAT ANTIDOTOA

«Kaixo Jon. Lehengusina [Marta] ama izatear dago. Egunotan jaioko da Oihane. Bera ez da konturatuko, baina ingurukoak ezingo gara besarkatu», jaso duen mezuetakoa bat. Eta Martari idatzitako bertsoa: «Marta zer moduz egun hauetan egun bereziak antza/ beti besteak zaintzen zabilta baina aldatu da balantza/ Laster Oihane txikia dator uju, irri eta dantza/ Nahiz ezin eman besarkadarik etor bedi guganantza/ Zure barruan daukazu mundu berri baten esperantza!».

Egunotan Jon Maiak idatzi dituen bertsoetako batzuk baino ez dira publiko egin, hartzaileak berak horrela erabakita. Beste bat, ezkontza aurreikusita izan arren, bertan behera utzi behar izan duen bikotearentzat: «Ze birus da hau Aritz ta Itziar izorratu zaituztena?/ Gaurko ezkontza eguna eta ondorengo bidai dena/ mundu osoan zabaldua da Koronabirusarena/ baina badago beste birus bat gera ezin litekeena/ zuen barruan mugarik gabe doan maitasunarena».

Zarauzko arraunlariak ere eskatu diote bertso pertsonalizatua, beste hainbeste kirolarik bezala beren jarduna bat-batean eta derrigorrean geratu izan behar dutenak. «Birus honen enbatak gogor jotzen darrai/ traineruak zintzilik nola egon lasai?/ orain etxea dugu gure ametsen kai/ baina beitu leihotik... hor dago oraindik, bai/ Kantauri, zabal, eder, gu noiz itzuli zai».

Eta Euskal Herriko AEK-k ere eskatu dio, bertso formako bultzada, etxean euskara ikasten ari direnentzat. «Mila ikasle zuen etxetan isolatuta zaudete/ baina euskara ez da hustuko nahiz eta gelak ez bete/ zenbat ahalegin, zenbat denbora zenbat amets, zenbat neke/ zenbat 'baneki', zenbat 'bagina', zenbat 'ahal da', 'baliteke'/ beste baldintza bat sartu zaigu ez muga eta ez epe/ isolamendu oro hizkuntzen azkena izan daiteke/ baina ikasleak, zuek bai, zuek nola utzi esateke/ etsipenaren birusarentzat antidotoa zarete».

tasuna, konpainia sentitu... Garai ona da kulturaren funtzio sozialaz hausnartzeko. Kanta batek, antzerki lan batek, liburu batek, dantza batek, film batek, bertso batek... jendearen bizi kalitatean daukan eragina nola neurtzen da? Kuantifikatzen al du norbaitek? Orain horren beharra oso handia da, denok behar ditugu gauza horiek bizi ahal izateko eta hobeto bizi ahal izateko. Horri buruz hausnartzeko une ona da. Krisi honek sekulako negua ekarri behar digu sortzaileoi».

Bertsolariak isilik daude. «Gureak maiztasun ikaraga-

rria dauka eta guk bat-batean publiko aurrean sortzen dugu. Uste dut azkenak izango gara la bueltatzen. Horrelakorik ez da inoiz ezagutu».

Eta hemendik ateratzen den jendartea, aurrekoaren desberdina izango al da? «Nik uste dut honek eragin bat izango duela, inork ez dugu ahaztuko. Pentsatu nahiko nuke honek kolektibotasunaren balorizazio bat ekarriko duela. Ulertu beharra daukagu mundu honetan kontua ez dela norbera salbatzea, baizik eta denok salbatuta bakarrik salbatuko dela norbera».



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Nondik gatozen jakin, nora joan ebazteko

Salbuespen egoerak astea bete duenean, beldur-rak, ziurgabetasunak eta asperdurak hamaika hausnarketa sakonetarako bide eman digute. Berauetatik ihes egiteko, edo, etxeko liburutegiari hautsa kentzearekin bat, heldu zaizkigu formatu digitalean literatura, zinema eta bestelako arteek utzitako lan andanarako sarbidea. Ezagutu dugun gizateriaren heriotza-ren testamentua bailiran, aurrean ezer hoberik izango ez dugun iragarle erromantikoak dirudite lan guztiok. Ni neu, "The Terminator" (1984) film ezaguna ikusten aritu nintzen bart, aspaldiko partez, eta iruditzen zait aurrera begirako beldur apokaliptikoa erlatibizatze baina, atzera, ezagunera begira, lasaiago lo egiteko ariketa izan zela.

Atzera begiratzea, dena den, bada aurrera begiratzeko modu on bat ere eta zientzia aktualitatea izan da horren testigu egunotan. Astelehenean PNASen argitara eman zenez, Rutgers Unibertsitateko (New Jersey, AEB) ikerlariak argi bat piztu dute bizitzaren jatorriaren gainean dugun misterioaren inguruan. Hain zuzen ere, hastapeneko bizitza zelularra ahalbidetu zuten prozesu metabolikoen ardura izan zuten egitura proteikoak identifikatzea lortu dute, egun ezagutzen ditugun proteinen konexio sareak metabolismoan duten paperaren arabera aztertuz eta berauen ibilbide ebolutiboa berreraikiz. Proteinak aminoazido kateak dira, espazioan egitura edo tolesdura jakin bat hartzen dutenak, eta horregatik askotariko funtzio metabolikoak betetzen dituztenak. Argitaratutako ikerketak erakusten duenez, bi izan ziren hastapeneko proteina horiek: Rossmann

izeneko tolesdurak dituztenak eta ferredoxina.

Atzera begiratze hori baina, ez da izan gure jatorria hobe ezagutzeko egin den ariketa erromantikoa, baizik eta abiadura bizian hazten dabilen bizitza estralurtarraren bilaketan kokatzen den kate begi berri bat. NASaren aterkipean lan egiten duen ENIGMA taldean parte hartzen dute aurkikuntzaren egileek, eta helburua argia da: etorkizunean egitura proteiko hauek bilatuz bizitza estralurtarren arrastorari hobe jarraitzea. Eta arrastoa diot, dagoeneko identifikatua izan baita jatorri estralurtarreko materia organikoa –aminoazidoz gain nitrogeno eta oxigenoa zituen– 2018an Marokon eta AEBetan aurkituriko meteoritoetan. Bizitza estralurtarren bila, nondik gatozen aztertzea da nora jo behar dugun ebazteko bidea, antza.

Etxeko paretan artean, begiradaren ortzimuga gure zilborrean jarri nahi digutenean, antzera egin dezakeguk ere. Artean eta zientzian arakatu, ziurtasunak bilatu, ziurtasunak hautatu, eta baita gaueko zeruan pizten zaizkigun astro bizilagunei begiratu ere. Niretzat bederen, ziurtasun iturri galanta eskaintzen dute gizateriaren ibili efimeroan betiereko diren astroek. Gaur nireak eta atzo haienak bezala, bihar ere iltzatuko zaizkielako hamaika begi, betiko astro zaharretako argi berriei. Salbuespen egunotan, etxeak ekialdeko zerua ikusten uzten badizue, Martitz, Jupiter eta Saturnoren arteko batasun polita izango duzue ikusgai, hodeiek uzten dizueten heinean. Gizateriarekin konektatzeko ez bada ere, izan bedi errutina apurtu eta begi-bista urrutira eramateko aitzakia. •



Atzo eta gaur bezala, bihar ere iltzatuko zaizkie hamaika begi, betiko astro zaharretako argi berriei.

{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

Inkiszizioa

Ni ez naiz eredugarri, hori da esan nahiko nukeen lehenengo gauza. Krisialdi honen aurrean besteak epaitu ditut; igandean ni neu nintzen txakurrak kalera ateratzen zituztenak eta mendira paseatzera zihoazenak leihotik inbidiaz begiratzen nituen horietakoa. Ez nien, noski, oihurik bota eta ez nituen grabatu, baina nire talaia moraletik epaitu egin nituen. Hasierako mezu horrekin konbentzituta; *#nietxeangelditzennaiz* eta *#denaongia-terakoda*. Nik ere barne inkisidore potente bat daukat. Eta kolektiboki bizitzen ari garen kontu bat izan arren, nik ere nire buruari, bikotekidearen eta alaben ongizateari begiratzen diot lehenik eta behin. Eta horrek ez du esan nahi inor kutsatu nahi dudarik edo kutsatuta izan nahi dudarik eta hori saihesteko neurriak hartuko ez ditudarik.

Zutabe honen bidez ezin ditut hartutako neurriak zalantzan jarri, ez naiz epidemiologoa, ezta biologoa, ezta medikua ere. Uneotan gailkonektatuta gaude, baita gaininformatuta ere koronabirusaren kontuarekin. Eta horrek, era berean, deskonektatu eta desinformatu egiten gaituela iruditzen zait. Barne beharretik deskonektatzen gaitu. Ni, adibidez, inoiz ezagutu ez dudarik antsietate krisia sufritzen ari naiz azken egunotan. Eta desinformatu ere egiten gaitu egoerak, zaila delako jada zer den egia eta zer gezurra jakitea. Ezin dut neurtu zer osasun ondorio izanen genituzkeen isolamendu neurrik gabe. Baina egia da ere isolamenduak bestelako ondorio ekonomiko, sozial, psikologiko eta fisikoak izanen dituela; enplegua erregulatzeko espediente bat jasan dutenentzat, lanik gabe gelditu direnentzat, esplotatuta euren indarren mugetara iristen ari diren osasun munduko edo supermerkatuetako langileenentzat. Zer esanik ez bakarrik bizi direnentzat, gaixotasun mentalak dituztenentzat, beren erasotzaileekin isolatuta bizitzera behartutako emakumeentzat

edo haurrentzat. Nola neurtuko ditugu ondorio horiek? Nola aterako gara isolamendu fisiko eta psikologikotik? Ez dut uste indartuago aterako garenik. Gauza bat agerian gelditu da behintzat beldurrarekin; mundua gelditu egin daiteke eta horretarako ez da beharrezkoa tankeak kalera ateratzea, nahikoa da gure barne epailearekin, gure barne inkisidorearekin.

Lehen egunotan nire Whatsapp taldeetara kaletik zenbiltzan pertsonen kontrako oihuz betetako bideoak iritsi zaizkit. Baloratu gabe kalean zeudenak arduragabe hutsak ziren edo benetan kalean egoteko beharra zuten (antsietate krisi baten ondorioz, bakarrik baliatzen ez den senide bat bisitatzeko, lanera edo medikuarengana joateko), niretzat deigarriena izan da ordena soziala inposatzeko mekanismoak zein sinpleak eta eraginkorrak diren oraindik ere gaur egun. Normalean, historiagile naizen heinean, iraga-

Deigarria da ordena soziala inposatzeko mekanismoak zein sinpleak eta eraginkorrak diren oraindik ere gaur egun. Iraganeko gizarteetan ohikoa zen kontrol sozial zorrotza ez da hain arrotza egunotan

na aztertzen dut eta zerbait badakit kontrol sozialari buruz. 1640. urteko Leringo bizilagun baten hitzak datozkit burura, «bizilagun honek, Leringo bizilagun bezala, ezagutzen ditu Leringo beste herritar guztiak, beraien bizitzak eta joan-etorriak, eta beraiek ere ezagutzen dute bera». Hori nahikoa zen kontrol soziala bortitza zen iraganeko gizarteetan, bereziki, noski, herri txikietan. Bakoitzak bere jokabidea arau sozial letara egokitzen zuen, askotan kanpo inposizio zehatzik gabe.

Gaur berdin jarraitzen dugula argi dago eta horrek koronabirusak baino gehiago kezkatzen nau ni momentu hauetan. •

YOGA FAMILIAN

Arnasketa kontzientetik ongizatera, lau pareta artean (ere) biziraun ahal izateko

 **JENDARTEA** / Amalur Artola Belamendia

Bai. Ditxosozko koronabirusak familia osoa lau pareta arteko itxialdira derrigortu duela eta jada kirioak dantzant ditugula. Amaitu zaizkigula marrazkiak, mahai jolasak eta haurrak geldirik –hori posible bada behintzat– eta lasai antzean mantentzen saiatzeko baliabideak. Eta, orain, zer? Nola lagundu haurrari –eta gure buruari– ongizatea mantentzen? Nola bideratu leher-tarazi behar gaituela dirudien energia hori? Nola egin bat gure buruarekin zurrumbiloaren erdigunean gaudenean?

Lierni Garcia Telleriarengana jo dugu aholku eske. Dantzaterapia, soinuterapia edo meditazio tailerrak eskaintzen ditu Garciak eta, haurrekin aritzeko, familian yoga egiteko proposamena dakarkigu. Klase teoriko-praktikoa prestatu digu gainera, lehenik yogaren baliagarritasunaz aritu eta, ostean, etxeko egongelan egiteko saio bat proposatuko baitigu. Baina, hasi aurretik, ohar garrantzitsu bat: «Haurrekin yoga egitea oso ezberdina da, etengabe mugitzen daudelako. Beraien energia dute eta errespetatu egin behar da mugitzeko duten behar hori. Baina gida ditzakegu, jokoaren bidez mugimendu horiek bideratu».

Goazen, beraz, jolastera.

ADIMENA ETA GORPUTZA

«Yoga gizakia tresna bezala lantzen duen metodo bat da; gorputza dauka, emozio batzuk ditu, adimena...», azaldu digu Garciak, eta yogaren arrakastaren gakoa gizarte gero eta *urbanitago* honetan naturarekiko distantzia areagotu izanari egotzi dio: «Yogak ematen dituen onurak lortze-

Naturarekin bat egitea gure buruarekin bat egitea da baina, zer gertatzen da itxialdian gaudenean? Nola egin bat gure buruarekin zurrumbiloaren erdigunean gaudenean? Lierni Garcia Telleriak familian yoga egitea proposatzen digu: lasaitzeaz gainera, norbere buruaz jabetu eta emozioak kudeatzeko tresnak batuko ditugu.

ko beste metodo batzuk ere badaude, naturarekiko kontaktuan egotea edo musika adibidez, baina yogak jakin du giza-kia osatzen duten zati horiek banan-banan lantzen, bereizita». Eta, horien artean, arnasketa da erregina: batetik, arnasketak ezberdintzen du asana bat ariketa gimnastiko

batetik eta, bestetik, arnasaren bidez lortuko dugu gure gorputzarekiko kontzientzia, jabetasuna. Emozioen kudeaketarako ere funtsezkoa da arnasketa kontzientea: «Haur bat arnasestuka eta negarrez dagoenean, ‘lasai, hartu arnasa’ esan eta bera arnasa hori kudeatzen hasten da, lasaitze-

raino. Haurrak bere arnasaren kontzientzia edukitzea, hori bera tresna bat da. Ez gara konturatzen gure biltegian ditugun tresnez», ziurtatu du.

Arnasaren garrantziaren beste adibide bat ere jarri digu: «Haserre gaudenean hiperbentilatu egiten dugu, arnasestuka dagoen zezenaren pare, arnasa sudurretik hartuz eta ahotik botaz baina ezpainak itxita ditugula. Baina arnasa bat-batean askatzen badugu ahoa irekita [hatsa bota du indarrez], tentsioa, hestetatik datorren haserre hori –ze haserre eta amorrua gibelean heltzen dira–, bota dezakezu».

Gorputzak memoria duela ere nabarmendu digu Garciak, haur garelarik gorputzean arnasa sosegatua izan dezakegula ikasten badugu gorputzak

Yogaren bertuteak aspalditik dira ezagunak; egunerokotasuna kudeatzeko tresna baliagarriak eskaintzen ditu.
GAUR8



Etxeko egongela zein supermerkatuko ilara amaigabea, leku guztiak dira aproposak yoga praktikak aurrera eramateko; gure gogo eta gorputzaren kontzientzia hartzea da gakoa

oroitu egingo duela eta, beraz, errazago lortuko dugula egoera horretara heltzea. Arazoa, baina, helduen mundura jauzi egitean sortzen da: «Zazpi urtera arte haurrak gurasoen eta ingurukoen energiaz elikatzen dira etengabe, horiek dira beraien erreferentziak eta berezko dituzten ahalmenak galdu eta gureak integratzen dituzte». Helduon tentsioen transmisore ez izateko, haurren munduarekin birkonektatzea proposatzen du Garciak, «ze, haurrek urduri jartzen gaituztenean, gu haien mundutik urrundu garelako da, ez da besterik. Haurrak gure maisuak ere badira», ziurtatu du.

GORPUTZAREN INTELIGENTZIAK

Arnasa era kontzientean hartzeak gorputzaren kontzientzia hartzea dakar berekin. Hurrengo urratsa adimenara, pentsamendura iristea da: «Askotan pentsamenduak hor ditugu eta ez gara ohartzen zer pentsatzen ari garen ere. Gorputza sosegatu baduzu, hasten zara zure burua ikusle moduan ikusten, pelikula batean bezala: nola nengoen lehen, nola nagoen orain, eta hortik adimenara zoaz. ‘Zer pentsamendu ditut? Orain koronabirusaz ahaztu naiz, baina nola sentitzen nintzen lehen?’. Libre dantzatzaren garenean bezala, alde arrazionala hustu eta gorputza beste inteligentzien baitan uzten dugu –mugimendua, erritmoa...– eta jabetasuna lortzen goaz».

Yogaren filosofia familiara eramatea aberasgarritzat jotzen du Garciak. Bere klasean ikusia du gurasoak nola lasaitzen diren euren seme-alabak autonomia eskuratzen ari direla ikusten dutenean, adibidez, haserre egon eta euren kabuz arnasketa ariketak egi-

Gorputzak badu bere memoria. Haur garela arnasa sosegatua izan dezakegula ikasten badugu gorputzak oroitu eta arnasa bere onera errazago ekarriko dugula azaldu du Garciak



Gorputza aktibatzeako jarreretakoa bat da «aizkolaria». GAUR8



Paperezko itsasontziak arnasketa eta meditazioa lantzeko baliu daitezke. GAUR8

ten hasten direnean. «Etorki-zunera begira, lasaitu egiten ditu horrek», ziurtatu du.

Eta, proba egiten hasteko, itxialdian gauden egunotan etxean egiteko moduko saio bat proposatzeko eskatu diogu Garciari. Esker onez jaso du gure eskaria, beretzat garrantzitsuena «nork bere buruaren jabetza berreskuratzea» baita.

TEORIATIK PRAKTIKARA

Hasteko, non egin yoga? Edozein lekutan (supermerkatuko ilara amaigabea gaudela ere egin ditzakegu arnasketa ariketak, lasaitzeko), baina, aukerarik, argitasun egokia (argi naturala hobe), leku oxigenatua, arropa eroso eta tenperatura atsegina izatea lagungarri izango zaizkigu.

Behin familia bilduta, ariketekin hasiko gara. Lehen fasea aktibazioa da: «Gelditu egin behar dugula ohartzeko, tentsioak askatzeko eta estresa kentzeko unea da». «Aizkolaria»-rekin hasiko gara: hartu aizkora, besoak atzera eraman eta gero aurrera, enborra moztean bezala, arnasa ahotik botatzen dugun artean. Errepikatu hainbat bider. «Aizkolariek arnasa potentzia hartzeko erabiltzen dute eta hor tentsio asko askatzen da». Dantza ere erabili daiteke aktibaziorako. «Edozein dantza. Nik joko bat erabiltzen dut: jarri galtzerdia galtzetatik zintzilik, ipurdi inguruan, eta jolastu elkarri galtzerdia kentzera. Egia da [koronabirusa dela-eta] gomendatu diguten distantzia ez duela betetzen, baina hurrekin metro eta erdira egotea irreal da».

Behin aktibatuta, jarrerak landuko ditugu. Lehena, «zuhaitza»: irudikatu zango bat enborra dela eta jarri bestearen oin-azpia enborraren kontra. Gero, eskuak elkartu

NAHI ADINA BALIABIDE ETA IDEIA, SAREAN ETA DOAN

Familian yoga egiteko zenbait ariketa ekarri dizkigu Lierni Garciak orriotara, eta sarean ere nahi beste proposamen topa daitezkeela ziurtatu digu.

Esaterako, kantua arnasketa kontzientea lantzeko beste modu da: «YouTuben badira euskal kantu asko karaoke moduan abesteko», proposatu du. Edo dantza libre: «Oso tresna potentzia da, nire yoga saioetan asko erabiltzen dut; mugimenduaren inteligentzia izugarria da». Hala, Interneten munduko dantzetan arakatzea gomendatu digu: «Oso errazak eta etnikoak aurki ditzakegu, eta bide batez dantzaren jatorriaz ikasi, bere esentziaz. Dantza eta kantua liberatzeko sortu ziren, eta momentu honetan hori behar dugu».

Eta hau guztia amaitzean, zer? Ba, yoga familian egiten profesional batekin trebatu nahi duenak Lierni Garciarekin harremanetan jartzeko aukera du (605 584 110): han eta hemen, deitzen dioten lekuan ematen ditu eskolak, euskaraz eta helburu zehatz batekin: «Inportanteena nork bere tresnak berreskuratzea da; jabetza eskuratzea».



eta eraman buru gainera, arnasa luze eta sakon hartuz, orekan zentratu eta gure zuhaitzari tinkotasuna emateko. «Jolasa da ea zuhaitza sendoa den ikustea. Besteok, putz eginez eta 'haize bolada bat dator eta zuhaitzaren adarrak astintzen ditu!' eta halakoak esanez, kontzentrazioa gal dezan saiaturako gara», proposatu digu. Oreka eta kontzentrazioa lantzeko ariketa aproposa.

“Igela” da haurren jarrera gustukoenetakoa: hankak al-daken parean zabalduta, makurtu eta sartu eskuak belaur atzetik, oinen artera. «Behin igelaren jarrera hartuta, etxean zehar jauzika aritu gaitezke edo gure buruari 'igel lasai bat naiz eta putzuan nago eguzkia hartzen' esan, arnasa lasai har dezagun».

“Txakurra buruz behera” jarrerak ere badu jolasik. Jarrera gure egiteko oinak eta eskuak lurrean jarri behar ditugu, hiruki moduan (hankak batuta). Erdian tunela duen mendi bat

garela irudikatuko dugu eta, elkarren ondoan mendiarena egiten gaudela, lehenak tunela zeharkatu eta amaieran jarriko da, hurrenak gauza bera egin dezan. Binaka ere egin daiteke, pasilloan esaterako, txandaka elkarren azpitik pasaz amaieraraino iritsi arte.

“Pinpilinpauza” jarrera hartzeko, eseri eta oinazpiak batu behar ditugu. Arnasa hartzen (sudurretik) eta botatzen (ahotik) dugun artean hankak ireki eta itxiko ditugu, hegala astinduz bezala.

“Arraina” egiteko buruz gora etzan eta eskuak ipurdi azpian

Yoga familian egitearen bertuteak goraipatu ditu Garciak. Yogan norbere ezagutza lantzen den bezala, taldean elkarren ezagutza eta konexioak areagotzen dira.
GAUR8

«Igela», «Pinpilinpauza», «Txakurra buruz behera»... hurrekin egiteko yoga jarrera aktiboak proposatzen ditu Garciak, «haurren energia errespetatu egin behar delako»

Yogaz aparte, Internet baliatuta dantza eta kantua (euskarazko karaokea) lantzea ere gomendatu digu, horiek «liberatzeko sortu baitziren, eta une honetan hori behar dugu»

jarriko ditugu, bularra igo eta burugaina lurraren kontra jarriz (haur txikiak laguntza beharko dute ariketa honetarako). «Oso polita da borobilean edo norbaitekin buruz buru egiteko, bestea buruz behera ikusten dugulako eta haurrei oso barregarria suertatzen zaie», azaldu du Garciak.

Behin tentsioak askatuta, Garciak lehen aipatzen zuen memoria berri hori sortu da gure gorputzean. Orain memoria hori erregistratzeko unea da: erlaxaziorako tarteak. «Tentsio horiek ez ziren gureak, joan dira, egoera berri hau da nire egoera normala. Hori barneratzeko da erlaxazioa», zehaztu digu Garciak. Erlaxaziorako, musika lasaiaekin elkarri masajeak eman diezazkiokegu, edo luma bat erabili aurretik laztan egin. Garciak “Lau elementuen masajea” proposatu digu. Eserita dagoenak jasoko du masajea: «Bizkarra eskuekin zantutuz lurraren sentazioa

lortuko dugu; eskuak igurtziz berotu eta gero bizkaraldea igurtziko diogu 'sua sortzeko'; eskuekin bere burutik behera ura jarioko balitz bezala egingo dugu; azkenik, eskuekin laztan aereoak edo putz egin».

Behin erlaxatuta, arnasketaren unea da. «Arnasketa lantzeko paperezko itsasontzi bat egin eta sabelean jar dezakegu, itsasoa garela irudikatuz. Nora eramango duzu itsasontzia? Sabelaldea puztu eta hustuko dugu, gure gorputzaren kontzientzia hartuz eta bide batez diafragma ere landuz».

Eta iritsi gara amaierara: meditazioa. Itsasontziaren jolasa egin badugu, meditazioa eginga izango dugu jada, «ze eskulanak egitean burua husten ari gara, mugimendu libre batean sartzen gara». Yoga saio batean une oro meditazioa lantzen ari garela nabarmendu du Garciak, «bestelako adimenek lekua uzteko etengabe gure burua husten ari garela», baina meditazioa lantzeko ariketa zehatzak ere badaude. Bere kutuna “Lasaitasun potea” da: kontserba tarro huts batean purpurina eta ura nahasi –zulagailuarekin tetra-brickari ateratako borobiltxoek ere balio dute– eta haurrari azalduko diogu nahasita gaudenean pote hori bezalakoa garela. «Purpurina aztoratua dago, zurrumbiloz betea. Gu ere horrela gaude ez dugunean gure arnasa kontrolatzen, ezin ditugu gure ideiak ikusi». Tapatik, soka batekin, izartxo bat jar daiteke eta, purpurina lasaitzen doan heinean, izarra agertuko da. «Oso polita da azaltzeko haurrei batzuetan ez dakigula gure arnasa, gure ideiak non dauden, ez ditugula gure ametsak ere ikusten, baina, arnasa hartzen hasten bazara, dena argitzen doala».



Amaia
Ballesteros

iRRITZIA:



BARRURAKO PLANAK

Askotariko telesailak, edonora ihes egiteko

 JENDARTEA / Gaizka IZAGIRRE BROSA

Etxeko egonaldi behartuan norberak bere ihesak topatu behar. Plataforma digitalen bat eskura duenak, horietan arnas pixka bat topa dezake. Eskaintza hain denez zabala, egoki arrantzatzea ez da beti erraza izaten. Hona hemen pista batzuk.

«THE OUTSIDER» / 18 URTETIK GORA / HBO

Beldur eta misterio dosi apur batez hasiko dugu itxialdirako gomen-dioen zerrenda hau. 2020. urtean estreinatu den telesail honek ileak puntan jartzeko gaitasuna erakutsi baitu lehen segundotik. Izen bereko Stephen King idazlearen eleberriaren moldaketa, hamar ataletan zehar, kasu aztoragarri eta sinestezin bat izango du ardatz. Esango nuke Stephen Kingek ez duela zorte gehiegirik izan pantaila txikiaren eremuan, zineman maisulanak

bilakatu diren filmak egin diren arren bere lanekin, telesailen arloan moldaketa nahiko inozoak topatu baitaitezke. Hanka sartze-ko beldurrik gabe esango dut, beraz, “The Outsider” telebistarako Kingen inoizko eleberri moldaketarik onena dela. Kasu aztoragarria aipatu dut, eta zergatia galdetzen ariko zarete. Frankie Peterson umearen hilketa basatia ikertzen hasiko dira Ralph Anderson detektibea (Ben Mendelsohn) eta Holly Gibney (Cynthia Erivo). Lehen atalean hilketa horren erantzulea nor den oso nabaria den arren, minutuak



igaro ahala frogatzen esplikaezinak eta ulergaitzak sartuko dira jokoan, Stephen Kingen munduan hain ezagunak egin diren naturaz gaindiko elementuak tartekatuz. Betiko thriller klasikoaren zantzuak dituen arren, *True Detective* telesailaren atmosferaz baliatzen da, *nordic noir* forma duen genero poliziakoaren eremuan murgilduz, beldurraren inguruko erradiografia paregabea eraikitzen. Eskandinaviatik jaio den kontakizuna dirudi, baina “It” filma ekuazioren barruan sartuz. Bortitza, iluna, itogarria eta botere-tsua.

«DARK» / 16 URTETIK GORA / NETFLIX

Urrutiko agintearen tekla sakatu aurretik ohar garrantzitsua: telesail berezi honen trama labirintikoa jarraitzeko, kalkulagailua, bolaluma eta koadernoak gertu izatea gomendatzen dizut, une askotan nahasmenean erortzeko arriskua izango baituzu. Txundigarria irudituko zaizun istorio honen muina Alemaniako herrixka batean gertatzen da. Askok, helduentzako “Stranger Things” gisa etiketatu duten arren, ikuspuntu eta atmosfera askoz ilunagoa duela iruditzen zait eta ildo horretan gertuago dago “Twin Peaks” telesailetik.



Lau denbora-tarte erabiliz (1952-1986-2019-2052), bi umeren desagerpen misteriotsua azalduko duen istorio bikain eta harrigarriaz gozatzeko aukera izango duzu. Misterioz beteriko telesail maitetsua, istorioaren protagonistek nahasten eta harilkatzen du-

ten misterioa. Ikusleari ematen zaion informazioa oso zehatz neurtuta dago, eta, tramaren korapiloak askatzen zoazen neurrian, muinean, mendekotasuna sortzen duen gidoi xurgatzaile batekin egingo duzu topo. Erabat zoraturik eta txundituta amaituko duzu.

«YEARS AND YEARS» /

12 URTETIK GORA / HBO

Koronabirusaren eztanda honen baitan irmotasunez gomendatzen dizudan izenburua, bertan ikusiko dituzun irudiak fikzio hutsa diren arren, zoritxarrez, geroz eta ezagunagoak egingo zaizkizulako. Hamabost urtean zehar Lyons familiaren istorioa jarraitzeko aukera izango duzu, urte horietan gizarte britaniarrean –eta munduan– ezinbestekoak izango diren gertaera politiko, ekonomiko eta teknologikoek izango duten eragin ikaragarria kontua izanda.

Sinopsia drama familiar arrunt baten inguruko istorio jasanezina eta errepikakorra irudituko zaizun arren, topatuko duzuna guztiz kontrakoa izango da. Errazago azaltzen saiatuko naiz. Hartu irabiagailua eta sartu: “Black Mirror” telesailaren xafila batzuk, “Sense8” eta “This is Us” telesailetakoa pertsonaien mamia, drama, umore beltza eta distopia esentzia apur bat. Alexa, Brexita, transhumanismoa, errefuxiatuak, gidoi biraketa harrigarriak eta erritmo frenetikoak. Guztia ongi nahastu. Emaizta, HBO on ikusgai daukazu “Years & Years” telesaila. A ze harribitxia!

«THE NIGHT OF» / 18 URTETIK GORA / HBO


Izen bereko telesail britainiar baten moldaketa da gomendatzen dizudan telesaila. Neska ezezagun batekin oheratu ostean, hurrengo goizean esnatzean, neska hilda eta labankadaz josia dagoela ohartzen da protagonista. Protagonista ez da ezertaz gogoratzen eta ihes egitea erabakitzen du. Hortik aurrera xehetasunez jositako ekoizpen milimetriko bat ikusteko aukera izango duzu, gurutzatzen joango diren azpi-trama desberdinen eta *flashback*

ugarirekin denboran joan-etorriak egiten dituen narrazio baten eraginez batik bat.

Hasieran, Nasir Naz Khan ikus dezakegu –Riz Ahmed aktore ingelesak modu bikainean gorpuztua–, Queens auzoan bizi eta pakistandar jatorria duen erdiko klaseko ikaslea. Aitari baimenik eskatu gabe, familiako taxia hartu eta Manhattanen antolatu duten festa batera joatea izango du helburu. Hainbat bidaiariri autora igotzea ukatu ostean (ezin du taxiko *in service* mezua itzali), Andrea Cornish izeneko neska

bat igoko da autora. Paseo, droga, alkohol eta hainbat sedukzio jokoren ostean, protagonista, neska sukaldetan esnatzen da hurrengo goizean. Etxeko eskailerak igo eta agurtzera doanean, orde, neska ohearen erdian, labankadaz josia, hilik aurkituko du. Momentu horretatik aurrera bere bizitza betiko aldatuko da.

Drama penal desberdin, ausart eta batez ere kritikoa aurkituko duzu harribitxi honetan. Arrazismoa, justizia, politika, arau kulturalak, agintaritzak, konformis-



moa edota borroka bezalako gaitentikorrak ukituz. Helmuga baino, garrantzitsuena bidea dela konturatuko zarete. Hori bai, bide hori, benetako maisulanak iruditzen zaizkidan lehen eta az-

ken atal zoragarrien artean babesturik. Aktoreak, pertsonaiak, gidoia, erritmoaren erabilpen paregabea eta, logikoa den bezala, HBO delako, alderdi tekniko zoragarria.

«WHEN THEY SEE US» / 16 URTETIK GORA / NETFLIX



Zoritzarrez, oso gertukoa sentituko duzun kontakizuna da honakoa, Altsasuko gazteek bizi duten bidegabekeriarekin zuzeneko lotura berehala egingo baituzu. Benetako kasu batean oinarrituriko ekoizpen honek, AEBetan *Central Park Five* ("Central Parkeko bostak") bezala eza gututako gazteek sufritu zutenaren inguruko erretratu latza erakusten digu, kartzelatu zituz-

ten bost gazte errugabe. Kasu horren baitan, gainera, ezinbesteko elementuak jartzen ditu mahai gainean, testuingurua beti delako garrantzitsua horrelako gertaerak ulertzeko; polizia basakeria, transfobia, Amerikako botere judiziala, arrazakeria, politika, justizia soziala.

Lau zatitan eraikitako kontakizun gordin honen hasierak protagonistak nolakoak diren eza gutzeko balio digu. Auzo xumeetan bizi diren nerabe arruntak, adin tarte horretan lo-

ratzen diren egonezinekin, batzuk besteak baino zentratuagoak, baina guztiak bihotz onekoak. Sortzen den enpatia azkar horri esker, Ava DuVernay sortzaileak ikusleari erraietara iristen zaion kontaketa mingarri eta larria osatzea lortzen du.

Egiturari dagokionez, telesailak lau zatiak erabiltzen ditu gazteen etapa oso konkretuak islatzeko: galdeketen gaua, epaiketa, erreformatorioko egunak eta, azken gaztearen kasua, larriena eta bidegabeena.

«SUCCESSION» /

16 URTETIK GORA / HBO

Hasierako tituluen musika hipnotikoa, ikustear zauden mirari txiki honen aurrerapen paregabea irudituko zaizu. Berrogeialdian egoteko beharra izango ez bazenu ere, ziur nago telesail honi heltzen diozun unetik ez zarela etxeko lau hormen artean mugitu ere egingo. Iaz estreinatu zen lan hau gomendatu nahi dizut, azken urteetako telesail zaparradaren azpian, ezkutu, ostrazismoan geratu den izenburu horietako bat iruditzen zaidalako. Familiari,

aberastasunari eta botereari buruzko ikuspegi oso entrete-nigarri, mingarri eta autentikoa eskaintzeaz gain, umore beltz ukituak dituen melodrama shakespearetar paregabea iruditzen zait. Lehen segundotik erabat harrapaturik utziko zaituen ekoizpen zoragarria.

Pertsonaia jasanezin eta gorrotagarriak baina era berean maitagarriak sortzearen meritua dauka Jesse Armstrong horiek ez ditu zentzurik gabeko atalen artean sartu, gidoi biribil eta sendo baten laguntza izan baitute, beraien garapena txundigarria eta ia perfektua bilakatzeko.



«THE OFFICE» / GUZTIENTZAT / AMAZON

Ha ma bost eguneko itxialdia eta umorezko telesailik ez? Lasai, komediaren arloan inoiz egin den telesailik onenatarikoa-ren inguruko sarrera irakurtzen ari zara eta. Halaxe da irakurle maitea, 2005tik 2013ra AEBetako NBC telebista katean eman zuten bederatzi denboraldi eta 188 ataleko telesail honek txoko pribile-

giatua betetzen du nire lan kuttunen kutxan. Dokumental faltsu formatuan grabatua, Dunder Mifflin paper enpresaren egunerokoa islatzen du. Tira, enpresarena baino, bertako langile xelebreena. Pertsonaia sorta zoragarriaren artean, Michael Scott nagusiarena nabarmenduko nuke, Steve Carell aktoreak gorpuztua. Mundu guztiak nagusitzat izan nahiko luketen pertsona den arren, langile guztien amesgaizto bilakatuko da. Andy Bernard, Dwight Schru-

te, Pam, Jim, Stanley, Angela, Kevin... “Succession” telesaileko protagonistak bezala, guztiak maitatu eta gorrotatuko dituzu. *Binge watching* edo atalak bata bestearen jarraian irensteko sail aproposa iruditzen zait, 30 minutu inguruko atal oso dibertigarriak eta arinak direlako, baina, batez ere, minutu horietan gertatuko zaizkien egoera surrealisten barrez leherraraziko zaituztelako. Amaitu aurretik oharra: lehen denboraldia ikus-



ten hastean, denok izan dugun sentsazio bera izango duzu, «ez zait gehiegi gustatzen, ez da oso barregarria...». Pazientzia apur bat eskatu nahi nizuke, atal gu-

txi batzuk igarotzean guztiok sentitu dugun lotura hori lortuko delako eta une horretatik aurrera «*That's what she said*» esaten amaituko duzulako.



«THE LEFTOVERS» / 16 URTETIK GORA / HBO

Bat-batean munduko biztanleriaren %2 desagertu egin da. Inork ez daki non dauden, zer gertatu den. Hala, maite dituztenak galduta, gainerako %98ak egoerari aurre egin beharko dio. Telesail honetara gerturatzeko intenziorik baduzue, hori da argi izan behar duzuen gauza bakarra: berdin dio desagerturiko pertsona horiek non dauden, garrantzitsuena bertan gelditu direnak baitira. Nola birmoldatuko dituzte euren bizitzak,

maite dituzten pertsonak ondoan izan gabe? Premisa horretatik tiraka, telesail bitxi bezain erakargarria dela esango nuke, misterioz eta suspensez betea. Mina, bakardadea eta desorientazioa gutxitan landu dira telesail batean hain modu indartsuan. Ikusleak bi muturretan banatzeko gaitasuna duen istorio horietako bat da. Zein muturretan kokatuko zarete? Telesaila gorrotatu ala maitatu egingo duzue? Garrantzitsua, telesailean sinestea eta barruraino murgiltzea. Asmoa hasieratik gillotina eskuartearen ikus- tea bada, hobe ez gerturatzea.

Bestalde, HBOren zigilua ikuste hutsa telesailera gerturatzeko argudio indartsua bada ere, aipatu kateak egindako ekoizpen ugarien artean, gutxi batzuek soilik dutela honen anbizio, ausardia eta originaltasuna. Interesgarria atal bakoitzetik atera daitezkeen eztabaidagai eta irakurketak. Hainbat unetan “Lost” telesaila datorkit burura, misterio ulertezin batez inguratua dagoelako guztia, eta, batez ere, hark piztu zizkidan antzeko sentsazioak sentiarazi dizkidalako. Ez da kasualitatea, beraz, sortzaileen artean, Damon Lindelof aurkitzea.

«TROLLHUNTERS» / HAURRAK BEREZIKI / NETFLIX



Etxeko txikiekin ikusteko animaziozko telesail aparta. Guillermo del Toro zinema zuzendari ezagunak sortua eta DreamWorks Animation etxeak ekoiztua, 15 urteko Jim Lake Jr gaztearen istorioa du ardatz, eskolara bidean amuleto mistiko batekin topo egingo duena. Objektu bitxi horri esker, bizi den herrixkaren azpian ezkutaturik, Troll zibilizazio bat aurkituko du. Abenturazko generoak eskaintzen dituen erremintak erabiliz eta animazioa helduleku gisa harturik, telesail epiko bat ikusteko aukera izango duzu, entretenigarria eta fantastikoa. Haurrentzako zinemaren barruan kokatuko nukeen arren,

etxeko nagusiekin batera ikustea gomendatzen dut, helduek haurtzarora bidaiatzeko aukera izango baituzue. Narrazioa umeak erakartzeko bezain sinplea den arren, atal konkretu batzuetan zirrara eta tentsio maila nabarmena topatuko duzue, zuek ere beraiekin batera harripaturik geratzeko modukoa. Trama nagusia apurka garatzen joango dela ikusiko duzue, gidoi trinko bat osatu arte, baina garrantzitsuena, haurrek behar duten irisgarritasun hori inongo unetan galdu gabe. Del Tororen eskua nabaria da ia minutu oro eta hori hainbat alorretan antzemango duzue: pertsonaia motak, gaizkileen konplexutasuna, beharrezko umore dosia edota genero fantastikoarekiko erakusten duen maitasuna.

«STRANGER THINGS» / GUZTIENTZAT / NETFLIX

Lehen denboraldiari esker batik bat, sare sozialak sustan jartzea lortu zuen telesaila. 8oko hamarkadako erreferentzia entsalada hau ikusteko, ordu luzeko maratoiak eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte azken urteotan. Zein izan da baina, Duffer anaiek zanpatzea lortu duten tekla magiko hori? Telesailaren posterra ikuste hutsarekin –Drew Struzan marrazkilariari omenaldi nabarmena–, gure De-lorean partikularrean 8oko hamarkadara bidaia egiteko aukera eskaini digutela. Sentsazioen berpizte etengabea, eszenaratze perfektu batez lagunduta, karakterizazio eta interpretazio bikain batzuei esker eta ezin hobeto tartekaturiko bel-dur dosi txikiak erabilita. Umorea, zientzia fikzioa, suspensea, maitasuna eta

akzioa modu hain orekatuan uztartzea ez da inolaz ere batere erraza. Familia osoarekin ikusteko telesail aproposa iruditzen zaidan arren, “Indiana Jones” filmeko elkarriketa guztiak buruz ez badakizkizu, zure etxean “Ghostbusters” filmaren posterrik ez badago, apalean zenituen VHS zaharkituak malenkoniaz gogoratzen ez badituzu, “E.T.”-ren soinu banda entzutean oiloipurdia jartzen ez bazaizu, bizikleta gainean abenturak bizitzea aspergarria iruditzen bazitzaizun edota basoaren erdian egurrezko etxolak inoiz eraiki ez badituzu –finean, 8oko hamarkadako seme-alaba ez bazara–, gozamen mailak behera egingo du, ekoizpen arrunta bilakatu ar-te. Lan hau pasioz ala axolagabetasunez bizitzea eta zein urtetan jaio ala hezi za-ren zuzenki proportzionala baita. Ala ez.



«THE VICTIM» / 12 URTETIK GORA / FILMIN

Lau ordu irauten dituen zirraren zurrunbilo betean murgilduko zara. Aipamen berezia aktoreen lanari eta elkarriketek sortzen dituzten tentsio, misterio eta une dramatikoiei. Nor da biktima oso gaizki funtzionatzen duen sistema baten barruan? Lau ataletan banaturiko drama xurgatzaile, gogor eta bikain honak, ume baten hilketaren inguruko kasu latz eta hunkigarria ar-



datz hartuta, Eskoziako sistema legalaren prozeduren inguruko ikuspuntu oso interesgarria eta mamitsua eskaintzen du. Eztabai-darako uneak sortzearekin batera, era oso ausartean jartzen ditu



«CATASTROPHE» / 12 URTETIK GORA / AMAZON ETA MOVISTAR+

Umore gehiagoren beharra baduzu, hementxe beste proposamen dibertigarri bat. Rob Delaney estatubatuarra da, eta, Sharon Horgan, irlandarra. Bien arteko “erlazio-motz” baten eraginez, neska haurdun geratuko da. Ez dira apenas eza-gutzen, baina harremana mantentzeko saiakera egingo dute. Premisa, ezin sinpleagoa. Baina horregatik iruditzen zait hain zuzen telesail honen meritua gorai-patzeko modukoa dela. Txikitutasun horretatik, telesail bikaina lortzea oso zaila delako. Baina “Catastrophe”-k, hasieratik erakusten dizkigu karta guztiak, ez du inor engainatzeko intentziorik. Kontatu nahi digun ideiarekiko fideltasun osoa eskaintzen digu lehen minututik.

Nabarmendu nahi dudana dena den, modu zoragarrian landuriko beste alderdi bat da: pertsonaiak. Zein garrantzitsua den gidoi ala istorio sendo baten barruan, tramarekin batera eskutik doazen pertsonaia landuak tartekatzea. Amazon etxearen ekoizpen honek, muturreraino eramaten du teoria hori eta bi protagonista maitagarri eraikitzea lortu du. Lehen minututik maitatuko ditugun bi interpretazio/pertsonaia zoragarriari esker. Esan bezala, Sharon Horgan eta Rob Delaney (aktoreez gain, telesailaren gidoilariak ere badira). Interpretazio aldetik sekulako erakustaldia eskaintzen digute, baina, batez ere, etengabe islatzen duten naturaltasun horri esker, kimika harriagarria sortzea lortu dute bien artean. Bilduma banaezin bat osatuz, biak elkarrekin zoragarri funtzionatzen dute.

mahaiaren gainean hainbat gai polemiko. Edinburgon kokaturiko thriller dramatiko hau, Anna Deanen irudian zentratzen da batik bat. Orain dela 15 urte hil zuten 9 urteko ume baten ama. Gakoa zein da? Ume hori beste adin txikiko batek hil zuela, eta, ondorioz, urte gutxi batzuk erreformatario batean igaro ostean, gobernuaren babespean, nortasun berri batekin ekingo diola bizitza berriari. Urte horietan guztietan zehar, Annak hiltzailearen nortasuna eta koka-

lekua ezagutzeko gurutzadari ekingo dio. Annaren desesperazio horrek Craig Myers izeneko gizon- ezko baten aurrean kokatuko du. Bera da hiltzailea ala sare sozialen erruz gizarteak epaitu duen pertsona errugabea da? Zuk zeuk deskubritu beharko duzu. Biktima izatea zer den, biktima izateak zer suposatzen duen eta biktima izatearen mugak non kokatzen ditugun azaltzen duen lan aparta. Nor da biktima oso gaizki funtzionatzen duen sistema baten barruan?



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Tupustean

Tupustean, unibertso paralelo batean aurkitu gara. Surrealismoz jantzi da errutina. Aurreko astean Boris Johnson estrategia alternatiboak iradokiz bazebilen ere, laster aldatu du taktika. Koronabirusak ez ditu-eta estrategiak ulertzen, birusa ez da selektiboa leku batean edo bestean.

Euskal Herriko "kurba"-rekin alderatuz aste bate atzetik omen gaude Londresen, eta hemen ere neurri zorrotzak hartzen hasi dira. Oraindik ez gaude konfinamendu hertsie-nean, baina egun gutxi gelditzen zaizkigula dirudi. Eskolak ostiralean itxiko dituzte eta hiriko milioi eta erditik gora ikasle etxeetan sartuko dira. Hasteko...

Londres erdian bizita inoiz imajinatu ezin nituen irudiak ikusten ari naiz. Kaleetako isiltasuna hunkigarria da benetan. Ohiko mugimendu azkarra eta erritmoa pausatuta sentitzea ere bai. Edo, supermerkatuetan sortu den psikosia. Ez da komuneko papera bakarrik gastatu dena, irrazionalismo basatienaren eta paniko kontrolaezinaren erdian, ahal duen guztia erosten hasi da jendea. Lagun batek ezin izan du pasta pakete bakar bat ere erosterik izan azken bi egunetan, auzoko bost supermerkatuetara joan bada ere. Goizeko zazpietan dendak ireki aurretik jende ilara handiak egiten ikustea ohikoa bihurtu da. Hiriaren erraldoitasunak larritasunaren pertzepzioa anplifikatzen du. Akaso.

Egun batetik bestera gertatu da aldaketa. Inposatu ziguten ustezko normaltasunaren ostean, egoera erdi-apokaliptiko batean gaude. Egokitzapen fase horretan gaude oraindik ordea, eta erreferentzia egonkor bat ez eduki-



Londres erdian imajinatu ezineko irudiak ikusten ari gara. Touga AKMEN | AFP

tzeak, interes berekoien eta egoeraren larritasunaren artean batetik bestera saltoka ibiltzea eragiten du, modu dikotikimo superfizial batean. Etxetik lan egitea ez delako hain eraginkorra kexu gara eta bulegoko kafe-tarteak faltan botatzen ditugula esaten diogu lankideari, Italiako datu asaldagarriak entzuten ari garen bitartean. Perspektiba galtzen dugu etengabe.

Hiperinformazioaren garaiotan, abantailetako bat da guk hautatu ditzakegula entzun edo irakurri nahi ditugun datuak. Izan ere, horrelako muturreko egoeretan ateratzen dira-eta espero ez genituen erreakzio eta jarrera positiboak ere. Ziurgabetasunak sortzen duen antsietate hori kudeatzeko terapia eraginkorra da askotan horietan fokua jartzea. Hainbat ekimen miresgarri buruz entzun dugu ospitaleetan lanean ari direnen alde (haiek di-

ra-eta benetako larritasuna ikusten ari diren heroiak); bakarrik bizi diren edo kalera ateratzerik ez duten adinekoei laguntzeko, kartelak jarri dituzte bizilagunek etxeetako ateetan; ordainpeko hainbat telebista plataformak, haurrentzako eduki gehiago jarri dituzte debalde; auzoko hainbat liburu dendak, isolamenduan daudenei liburuak eramaten dizkiete etxera; joaten naizen yoga zentroa, debalde hasi da *streaming* bidez klaseak ematen; supermerkatuetan, eguneko lehen ordua behar gehien dutenentzat mugatuta egongo da; zinemen itxierarekin, filmak lehen aldiz erakutsi behar ziren egunean, telebistaz ikusi ditzakegu egun berean.

Planifikatu gabe egokitu zaigun bizitza berri honetan, jendearen alde ona ateratzeko balio badu (baita ere), ikasi dezagun jarrera miresgarri horietatik. •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



GERMAN ZORRAQUIN. GEREDIAGA ELKARTEA

DURANGOKO EMAKUME ESPETXE GOIBELEAN PRESO

1937ko martxoaren 31n, Italiako abiazio legionarioak Durangoko biztanleak bereizi gabe bonbardatu eta metrailatu zituen, eta ehunka hildako eta zauritu eragin zituen. Egun horretan bertan, Elorrio izan zen Italiako hegazkinek bonbardatu zuten beste herrietako bat, eta gutxienez zazpi lagun hil ziren. 1937ko apirilaren 28an Durangon Molaren tropak sartu ziren. Errepresioa berehalakoa izan zen: kartzela, heriotza, erbesteratzea, bortxaketak... 1937ko abuztuan, Neverseko Karitateko Ahizpen Kongregazioak Durangon zuen ikastetxea bertako Udal frankistari eman zion, gerra presoak sartzeko, zehazki, 14. Langileen Bataloiko 1. konpainia, Bizkaiko herrira hondakinak kendu eta berreraikitze lanak egitera eramandako lagunez osatutakoa. 1939aren amaieran, gerra amaitu ondoren, emakumeentzako espetxe bihurtu zen. Frankistek Estatuko beste karteletako presoak ekartzen zituzten, errepresaliatuak. Zenbait historialarik jasotako testigantzen arabera, emakumez betetako trenak iristen ziren abereentzako bagoietan, goiko aldean arnasa hartzeko nahikoa ez zen leiho bat baino ez zutela. Kartzelako baldintza higienikoak oso txarrak ziren: hotza, janari urritasuna, ur eta saneamendu falta... Kasu batzuetan, presoak sukar tifoidea izatera iristen ziren. Zeldetan oso leku txikian lo egiten zuten emakumeek eta beren seme-alabek, pilatuta, baldintza osasungaitzetan, hainbat gaixotasunen foku bihurtuta. Horregatik hil ziren preso batzuk eta haien seme-alaba batzuk. Kartzelarien bortxaketak ere izan ziren. Durangoko emakumezkoen espetxea 2.000 preso izatera iritsi zen. 1940aren amaieran zentro hura itxi eta presoak Zornotzako eta Saturrarango espetxeetara eraman zituzten. Irudia German Zorraquin argazkilariak egindakoa da. Preso talde bat eta haien seme-alabak ageri dira Durangoko emakume espetxearen aurrean, argazkilariari begira.



GAUR8 ireki gure leihoa

